
**GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN PLAN
ZUZENTZAILEA
2010-2013**

UDAL GAIAK BILDUMA



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN PLAN
ZUZENTZAILEA
2010-2013



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

ARGITARATZAILEA:

Vitoria-Gasteizko Udala

EGILEA:

Herritar Harremanen Saila
Garapenean Laguntzeko Zerbitzua

BILDUMA:

Udal Gaiak

ITZULPENA:

Saretik

ARGAZKIAK:

Mikel Arrazola

MAKETAZIOA:

La Debacle S.L.

www.vitoria-gasteiz.org

AURKIBIDEA

HITZAURREA.....	7
SARRERA.....	9
Zertarako Plan Zuzentzailea?	11
Adostasuneko lankidetzaren politika	12
Plan Zuzentzailea egitea	12
LEHENENGO ATALA: OINARRIAK.....	15
Vitoria-Gasteizko Udalaren garapenerako lankidetzaren ibilbidea	17
Gure udal-lankidetzako eragileak eta haien gaitasunak	19
Lege- eta arau-testuingurua	20
Udalaren berariazko konpromisoak	21
Testuinguru teoriko laburra: garapenari eta elkartasunari buruzko oinarritzko balioak eta kontzeptuak	21
Udaletako lankidetzaren espezifikotasuna	24
BIGARREN ATALA: TESTUINGURU ESTRATEGIKOA	27
Egitekoa	29
Ikuspegia	29
Helburuak	29
Garapenerako lankidetzaren ikuspegiak	30
Lerro zuzentzaileak	30
Ondo bereizitako bi alor: garapenerako lankidetzaren (CD) eta garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioa (SyED).....	37
Politiken koherentzia.....	38
HIRUGARREN ATALA: LANKIDETZAN JARDUTEA	39
Lankidetzaren alorreko testuinguru operatiboa	39
Garapenerako lankidetzarako udal-eragileak	41
Lankidetzaren alorreko helburu espezifikoak	42
Garapenerako lankidetzaren alorreko tresnak.....	42
“Eraginkortasunerako printzipioak” eta udal-lankidetzarako egokitzapena	43
Garapenerako lankidetzaren alorrerako lerro zuzentzaileen zehaztapena	45
Lehentasun geografikoei buruz	49
Sektore mailako lehentasunei buruz.....	50
Askotariko tresnen deskribapen eskematikoa	51
Kalitatea eta eraginkortasuna hobetzeko neurriak	58

LAUGARREN ATALA: HIRIAN JARDUTEA...

Garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazio alorreko testuinguru operatiboa	63
Garapenerako hezkuntzaren eta sentsibilizazioaren ikuspegia.....	65
Alorreko helburuak.....	66
Garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioko eragileak	66
Garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazio alorreko tresnak	67
Sentsibilizazioaren alorrerako lerro zuzentzaileen espezifikazioa	68
Garapenerako hezkuntzako eta sentsibilizazioko askotariko tresnen deskribapen eskematikoa	71
Kalitatea eta eraginkortasuna hobetzeko neurriak	80
Parte-hartzea	80

BOSGARREN ATALA PLANAREN ERAGINKORTASUNA

Baliabideak, emaitzak eta ebaluazioa	83
Giza baliabideak	85
Garapenerako lankidetzarako aurrekontua	86
Eremu eta tresnen araberako aurrekontuaren banaketari buruz.....	86
Planaren emaitzak eta adierazleak.....	87
Planaren jarraipena eta ebaluazioa	90

HITZAURREA

Gasteiz gizarte eskubideen hiriburua da eta, gainera, garapenean laguntzeko programak bultzatu zituzten Espainiako lehenengo hirietako bat, duela hogeitau urte baino gehiago. Harrezkero, Udalak zein Gasteizko jendarteko hainbat entitatek elkartasuna bultzatzen eta laguntzeko modu berriak garatzen dihardugu.

Orain beste urrats bat egingo dugu, Garapenean Laguntzeko 2010-2013ko Plan Zuzentzailea abiaraziz. Udal talde politikoek Plan errealista adostu dute, garatzeaz arduratuko diren eragileen ahalmenei egokitzen baitzaie, behar diren baliabideak aintzat hartuta.

Planak ikuspegi berritzailea dakar lankidetzaren alorrera, aurrekontua funtsean garatzeko bidean dauden herrialdeetan proiektuak gauzatzera bideratzen bada ere, hirian elkartasuna sustatzeari ere pareko garrantzia ematen baitio, alegia, gasteiztarren artean garapenerako sentsibilizazioa eta hezkuntza sustatzeari, haiek beti nabarmendu baitira behar handiena dutenekiko konpromisoa erakustegatik.

Planaren ildo nagusiek erakusten dute lortu nahi dugun helburua, alegia, hiri solidarioagoa izatea. Giza garapeneko prozesuak sustatuko ditugu, giza eskubideen errespetua nabarmenarazten dutenak, hiriko taldeen zein pertsona anonimoen benetako inplikazioarekin. Elkartasun kultura sorrarazi nahi dugu Gasteizen.

Plan honi esker uneko ekintzetatik haratago joango gara, toki eremuan denboran jarraitutasuna duten proiektuak garatuko baititugu, garapenerako toki prozesuei laguntzeko. Testu adostu horrek hiriko etorkin taldeekin lotutako lankidetzaren sustatzeko bide emango du halaber, eta bidezko merkataritza bultzatzea, Udalaren erosketa politikaren bitartez. Udala lankidetzaren zein sentsibilizatzeko eta hezkuntza programetan inplikaturiko da, eta lankidetzaren aritzen diren gainerako erakunde publikoekin koordinaturiko.

Gasteiz hiri solidario eta eskuzabala da, eta behar handiena dutenekiko konpromiso handia du, horregatik, bidearen erdia dagoeneko egina dago. Herritarrak planetako arazo globalan neurri handiagoan inplikatzeko lagunduko du Planak, eta lankidetzaren eraginkortasuna eta gardena izatea lortuko du gainera.



Patxi Lazcoz Baigorri
Vitoria-Gasteizko alkatea

1

SARRERA



Zertarako Plan Zuzentzailea?

Vitoria-Gasteizko Garapenean Laguntzeko Kontseiluan udalak lankidetzan eman dituen 20 urteei buruzko balantze-prozesua eta etorkizuneko ikuspegi buruzko hausnarketa zabaldu zen 2008an¹.

Berehala agertutako ondorioetako bat izan da Vitoria-Gasteizko Udalaren lankidetzak lan-ildo koherente eta egonkorrak izan dituela eta "izatezko lankidetzak-politika" dei genezakeena, baina ez du sekula izan lankidetzak-politika jasotzen duen eta kudeaketan jarraitutako oinarritzko irizpideak esplizituki biltzen dituen dokumentu orokorrik eta, horrek, aurretik esan ezin daitekeen eszenatokia sor zezakeen tartean sartutako eragileentzat.

Zalantzarik gabe, udal-aurrekontuaren % 1 kudeatzeko² (3.300.000 € inguru 2009an) Plan Zuzentzailearen dokumentua behar da, hau da:

- 2010-2013 aldirako garapenerako lankidetzak-politika azalduko duen dokumentua
- aldi horretarako aurrez ikusitako lankidetzak-tresna eta -modalitate ugariak bilduko dituen
- lankidetzarako tresna ugari aplikagarriak zaizkien ildo eta irizpide nagusiak xehatuko dituen

Dokumentu hori eragilea izatea lortu nahi da eta jarraibideak markatzea, baina beti udalaren lankidetzaren ezaugarri izandako nahitaezko egokitze-gaitasuna, politiken bilakaera eta ekimen berriak martxan jartzea mugatu gabe.

1 *Ikusi aurrerago prozesuaren deskribapena.*

2 *Udal-aurrekontuaren Ohiko Diru-sarreraren baturaren ehuneko gisa kalkulaturik (Diru-sarrei buruzko 1-5 kapituluak).*

Hori dela eta, ez da Planaren helburutzat jotzen garapenerako lankidetzaren aurrekontua asotariko tresna eta programen artean banatzea.

Adostasuneko lankidetzaz-politika

Beste aukera batzuen artean, eta batik bat kontuan hartuta Planaren indarraldiak oraingo udal-legealdiaren amaiera eta hurrengoaren erdia hartuko dituela, Vitoria-Gasteizko Udalak bertan ordezkatutako indar politikoen multzoak adostutako garapenerako lankidetzaz-politika definitzea erabaki du.

Horrek ez du esan nahi alde batera utzi behar denik garapen iraunkorrak gobernantza, giza eskubide, alderdi politiko, ekonomiko, sozial, ingurumeneko arloak jasotzen dituela. Arlo horiek logikoki filosofia eta aukera politikoen arteko aldeak izan ditzakete. Ezta lankidetzazko programek eta ekintzek beren testuinguruan izan ditzaketen inplikazio sozialak eta politikoak ezeztatu behar direnik ere; izan ere, lankidetzaz eragile batzuk indartu egiten ditu. Aldiz, onartu behar da helburua ez dela udalaren lankidetzaz aukera eta estrategia politiko jakinak bultzatzea; garapenerako ekintza eta politiketan oinarritzen da.

Plan Zuzentzailea egitea

Plan Zuzentzailearen egin aurretik Vitoria-Gasteizko Udalaren 20 urteko lankidetzaz balantzea egin zen, Garapenean Laguntzeko Kontseiluaren testuinguruan. Prozesu horretan Lantaldea sortu eta taldearen hausnarketarako oinarritzat balio izan zuten hainbat azterketa agindu ziren. Eskatutako lanek hiru eremu hartzen dituzte:

- Vitoria-Gasteizko Udalak egindako lankidetzaz azterketa:
 - “Vitoria-Gasteizko Udalaren garapenerako lankidetzaz-politikaren azterketa 1996-2006”, Natalia Rodríguez eta Virginia del Arco, Euskadiko GGKEko koordinatzailea
 - “Sentsibilizazioaren praktikari eta Garapenerako Hezkuntzari buruz irekitako eztabaia”, Miguel Argibay
 - “Vitoria-Gasteizko Udalaren garapenerako lankidetzazko genero-ekitate: hamarkadaren balantzea eta proposamenak”, Clara Murguialday
 - “Vitoria-Gasteizko Udaleko garapenerako lankidetzaz-politikako bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua”, Setem, Bakeaz eta Emaus
 - “Vitoria-Gasteizko Udalaren lankidetzaz tekniko”, Aitor Gabilondo, Garapenean Laguntzeko Zerbitzua
- Espainiako lankidetzaz deszentralizatuaren bilakaeraren azterketa:
 - “Tokiko erakundeetako lankidetzaz deszentralizatuaren ikuspegi panoramiko - Haien eginkizunari eta etorkizunari buruzko hausnarketa” Carlos Gómez Gil
 - “Lankidetzaz deszentralizatu publikoaren egungo praktiken eta joeren panoramika”, Jean-Pierre Malé, Lankidetzaz Deszentralizatuaren Behatokia UE-AL
- Gasteizko testuinguruaren bilakaera aztertzeko elementuak:
 - “Vitoria-Gasteizko GGKEei buruzko azterketa”, Yeni García eta Míchel Sabalza, Hegoa
 - “Vitoria-Gasteizen bizi diren nazionalitate espainiarrik gabeko etorkinak”, Informazioaren Teknologietako Sailaren Azterketa eta Estatistika Kabinetea.

Taldeak on lineko foroaren bidez egin du lan eta funtsean landutako idatzizko artikuluetara eta ekarpenetara heltzeko balio izan du, gaikako lan-saioren bidez.

Ondoren, Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak hainbat sail, zerbitzu eta udal-erakunde-tatik informazioa bildu du eta garapenerako lankidetzaz eta garapenerako sentsibilizazioko eta hezkuntzazko gaietan lankidetzaz-aurrekariak zituen kasuan, bereizi egin ditu.

Hauen ekarpenak eta konpromisoak jaso dira: Kultura Saila, Funtzio Publikoa, Gizartegintza Saila, Ingurumen Saila, Herritar Harremanen Saila, Hirigintza Saila, Kontuhartzaitza Nagusia, Aguas Municipales de Vitoria, SA (AMVISA), Ingurugiro Gaietarako Ikastegia (CEA), Vitoria-Gasteizko Hirigune Historikoa Era Integralean Biziberritzeko Agentzia (ARICH, SA).

Azterketetan eta lantaldearen saioetan jasotako alderdiekin, Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak Plan Zuzentzailearen lehen zirriborroa egin zuen eta gerora hiru berrikusketa izan ditu:

- Vitoria-Gasteizko Udaleko lankidetzari buruzko analisisia egin zuten adituen artean lauk (Clara Murguialday, Miguel Argibay, Michel Sabalza eta Carlos Gómez Gil) zirriborroari buruzko balioztapenak eman zituzten
- Zirriborroaren eta balioztapenen lehen aurkezpenaren ondoren, Garapenean Laguntzeko Kontseiluko kideek beren iritzia eta proposamenak eman ahal izan zituzten eta bi alderaketa-saio egin ziren.
- Adituen iritziekin, Kontseiluko kideen proposamenekin eta egindako saioekin, Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak berrikusitako dokumentua landu zuen.
- Udaleko alderdi politikoek, bestalde, lehen saioa egin zuten adituekin eta Kontseilua osatzen duten erakundeek ekarpenak bildu ondoren, berrikusitako dokumentuari buruzko lan-saioa egin zuten. Udaleko alderdi politikoen ekarpenekin dokumentuko azken aldaketak egin ziren.

PLAN ZUZENTZAILEAREN EGITURA:

“Oinarriak” lehen atalean jasotzen dira garapenerako lankidetzari dagokionez udalak egindako ibilbidea, lege-testuinguru aplikagarria, ezinbesteko kontzeptuak biltzera mugatzen den testuinguru teoriko laburra eta udaletako lankidetzaren espezifikotasunari buruzko oharrak.

“Testuinguru estrategikoa” bigarren zatian jasotzen dira Plan Zuzentzailearen helburua, ikuspegia eta jarraibideak –muina osatzen duten lerroak– eta bi jarduera-eremuen bereizketa finkatuta uzten du: garapenerako lankidetzak, batetik, eta garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioa, bestetik. Beste udal-politika batzuekiko koherenziaren erreferentzia laburrarekin ematen zaio amaiera.

Hirugarren zatia, “Lankidetzan jardutea”, garapenerako lankidetzaren arloko testuinguru eragilea da. Udaleko lankidetzako eragileak eta tresnak zehazten ditu, definitutako lerro zuzentzaileen eta “laguntzaren eraginkortasun-printzipioen” inplikazioak aztertzen ditu eta finantziario-tresna edo -lerroen deskribapen sintetikoa egiten du.

Laugarren atala, “Hirian jardutea”, garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioaren arloko testuinguru eragilea da eta aurrekoarekin alderagarria den egitura du, baina tresnak ekintzaren tipologiaren arabera ordenatzen ditu.

“Planaren eraginkortasuna” bosgarren zatiak labor jorratzen ditu baliabideen, emaitzen eta planaren ebaluazioaren gaiak.

Plana hasieran hiru alderdi zentraletan oinarritzen da: lerro zuzentzaileak, eragileak eta erabilitako tresnak; horien arteko erlazioak definitzen ditu Udalaren garapenerako lankidetzako eduki zehatzak.

LEHENENGO ATALA

OINARRIAK



LEHENENGO ATALA

OINARRIAK

Planak abiapuntu anizkoitza du. Vitoria-Gasteizko Udalak egindako garapenerako lankidetzaren ibilbidetik abiatzen da; lege-testuingurua hartzen du kontuan; garapenaren, elkartasunaren, lankidetzaren, lankidetzako eragileen eta haien gaitasunen ikuspegian oinarritzen da eta bereizitako bi alor banatzen ditu: Lankidetzaren, batetik, eta Garapenerako Hezkuntza eta Sentsibilizazioa, bestetik.

Vitoria-Gasteizko Udalaren garapenerako lankidetzaren ibilbidea

1988an, Vitoria-Gasteizko Udalbatzak aurrekontuaren³ % 0,7 garapenerako lankidetzara bideratzea erabaki zuen. Erabaki hark udal-lankidetzaren hasiera markatu zuen, bai Vitoria-Gasteizen, bai Espainia osoan.⁴ 1995ean, Udalbatzak lankidetzara bideratutako ehunekoa % 1 era igo zuen.

21 urtez, Espainiako udaletako lankidetzarekin bat egin duen garapenerako lankidetzaren diseinatu eta egin da, nahiz eta ezaugarri espezifikoak izan. Ezaugarri nagusiak honela laburbildu daitezke:

- Udaleko lankidetzaren bultzatu duten printzipioak elkartasuna eta giza eskubideak izan dira.
- Laguntza ekonomikoa izan da funtsean, Garapenerako Laguntza Ofizialerako –1988tik 2009ra– 36 milioi euro inguru eman dira⁵.
- Lankidetzaren nagusiki Garapenerako Gobernuaren Kanpoko Erakundearen (GGKE) bidez bideratu da. Azken urteetan, lankidetzarako aurrekontuaren % 85 eta % 90 artean hirian

3 *Udalaren aurrekontuko diru-sarrereri buruzko 1-5 kapituluetakoko baturaren gainean kalkulaturako ehunekoa, hau da, ohiko diru-sarreraren guztizkoaren gainean.*

4 *Kordobako Udala izan zen udal-lankidetzaren hasi zuen beste udala.*

5 *Garapenerako lankidetzarako udal-aurrekontua 3.300.000 eurora igo da 2009an.*

presentzia, egitura eta jarduera duten 30 GGKE inguruko kolektibo nahiko egonkorrak kudeatu du.

- Saharako errefuxiatuekiko konpromiso iraunkorra mantendu; hitzarmen hori 1995etik dago indarrean eta AEDSko Lagunen Elkartearikiko hitzarmen-markoan adierazita dago eta 1987an adostutako senidetzeari eduki jakina ekartzen dio –La Güerako *dairarekin*–.
- Era berean, udalak modu iraunkorrean jardun du lankidetzan Cogoko Manuel Iradier Elkar-te Afrikanistarekin. Ekuatore Gineako Cogo herriarekin 1990ean senidetza hitzartu zen.
- Lankidetzako benetako eragile eginkizuna hartzeko nahia hegoaldeko erakundeekiko zuzeneko lankidetzako esperientzietan gauzatu da, bereziki El Salvadorreko Nejapa Udallerriko alkatetzarekin egindako hiru hitzarmen jarraituetan (1995-1997, 1998-2000 eta 2003-2005).
- Beste udal batzuekin batera jarduteko eta udal izaerako lankidetzan sakontzeko nahia ere adierazi da Euskal Fondoa - Asociación de Entidades Locales Vascas Cooperantes erakundean parte hartuta 1996an sortu zenetik.
- Espezializatutako udal-zerbitzuetatik proiektuetan edo programetan lankidetzako teknikoko esperientzia ugari egin dira⁶, batik bat hauek: Aguas Municipales de Vitoria, SA (AM-VISA), Ingurugiro Gaietarako Ikastegia (CEA), Hirugarren Adinekoen Zerbitzua, Berdintasuneko Zerbitzua eta Gizartegintza Saila.
- Inpaktu handiagoko lankidetzako modalitateen bilaketatik lankidetzako zenbait urtetarako proiektuen deialdiak (2000, 2004 eta 2007) eta proiektu espezializatuagoak etorri dira (giza eskubideen babeserako deialdiak).
- Garapenerako lankidetzaren kalitatea hobetzera jotzen duten askotariko praktikak, esaterako, amaitutako proiektuen inpaktu-ebaluazioak (1995etik) eta zenbait urtetarako proiektuen identifikazioa deialdi espezifikoetan testuinguruan (2000tik aurrera).
- Deialdietatik kanpo egindako lankidetzako ekintzak arautuko dituzten irizpideen definizioa, 2001ean "Lankidetzako hitzarmenak onartzeko oinarrien" onespenerarekin.
- Erakunde gertukoekin eta bereziki Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan jarduteko nahia; 2001etik lankidetzako hitzarmenak finkatu dira urtero.
- Hainbat GGKEk eta bestelako herritarren erakunde batzuek batera parte hartuko dute sentsibilizazio-ekimenen sustapenean, "Egin Bira Lurbirari" programan, esaterako.
- Garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioaren etengabeko kezka; eta hori sentsibilizazio deialdi espezifikoetan (1998tik) eta garapenerako hezkuntza-deialdietan (1997tik 1999ra eta gero, 2005etik aurrera) azaldu da.
- Identifikaziorako alde aurreko deialdiaren artikulazioa, garapenerako hezkuntzako hiru urteko proiektuen deialdiarekin, GGKE partzuergoek elkarrekin egiteko.
- Larrialdiko laguntzarako 2005ean Arabako Foru Aldundiarekin eta Caja Vital Kutxarekin batera abian jarritako mekanismo espezifikoak: Larrialdietarako Arabako Funtsa.
- 2002an bidezko merkataritzako kafea gizarte etxeetan eta kirol-instalazioetan sartzearrekin, Udalak Bidezko Merkataritzaren eta Kontsumo Arduratsuen aldeko ibilbideari ekin zion. Ekimen hori 2008ko ekainaren 23an onartutako Aitorpen Institutuzionalean jaso eta garatu da.
- Kudeaketa-egitura mugatua: 1992tik 1998ra plaza tekniko bakarra, 1998tik 2006ra bi plaza eta gaur egun hiru plaza (horietatik bat ez dago finkatuta).

Zalantzarik gabe, zaila da lankidetzako ibilbide horren balioespen orokorra egitea. Lankidetzaren helmugako tokietako garapen-emaitei dagokienez, zailtasun hori faktore hauekin lotuta dago: egindako ekintzen muturreko banaketa, horietako gehiengoaren jarraipen-falta, egindako eremuko

6 *Bereziki zuzeneko lankidetzaren testuinguruan eta Euskal Fondoaren testuinguruan egindakoa.*

ebaluazio kopuru mugatua eta lankidetzak dinamika sozialen, kulturalen, ekonomikoen eta tokiko instituzioen mendeko elementu izaten jarraitzen duela egiaztatzea.

Hala ere, balantzea, oro har, positiboa dela dioen iritzia nagusitzen da, hau da, herri-sektoreko behar ugari erantzuna (zenbait kasutan iraunkorra) eman zaie eta udal-instituzioak eta erakunde sozialak indartzeko hainbat prozesu bultzatu dira.

Hiriko elkartasunaren sustapenari dagokionez, GGKEei lotutako herritarren kolektiboen jardueran lagundu izana hartu behar da kontuan zalantzarik gabe, bidegabekeriaren biktimak diren herri eta sektoreen askotariko kausak hedatu izana edo hiriko sektoreetara garapenarekin eta globalizazioarekin lotutako arazo ugari hurbildu izana. Hala ere, ezinezkoa da egindako sentsibilizazioko eta hezkuntzako esfortzuen hedapen globala balioztatzea.

Gure udal-lankidetzako eragileak eta haien gaitasunak

Vitoria-Gasteizko Udaleko lankidetzaren ezaugarri nagusietako bat Garapeneko Gobernu Kanpoko Erakunde bidez oso proportzio altuan garatu izana da, bai lankidetzaren alorrean, bai garapenaren sentsibilizazioaren eta hezkuntzaren alorrean. Azken urteetan Vitoria-Gasteizko Udalaren garapenerako laguntza ofizialaren % 85 inguru gutxi gorabehera hogeita hamar GGKE modu egonkorrean bideratu dutela ere esan daiteke.

Nolabait kolektibo mugatua den arren, aintzat hartu behar da haren heterogeneotasuna; alde batetik, izaerari eta loturei, erakunde dimentsioei eta gaitasunei, lankidetzako ikuspegiei, esku-hartze eremu geografikoei, lankidetzako sektoreei (batik bat gutxiengoa osatzen dutelako espezializazio sektoriala definituta dutenak) eta sentsibilizazio- eta hezkuntza-gaietan duen gaitasunari dagokionez; eta beste aldetik, oinarri sozialari, egiturari eta hirian boluntarioak mugiarazteko gaitasunari dagokionez. Gasteizko GGKEen beste ezaugarri esanguratsu bat gehienetan izaten den soldatapeko langileen aldaketa maila altua izan da.

Vitoria-Gasteizko Udaleko lankidetzan finkatutako beste eragileetako bat Euskal Fondoa izan da. Erakunde horrek bi ezaugarri izan ditu, batetik, lankidetzaren egiten duten tokiko erakunde sare-funtzioa bete du, eta, bestetik, udalaren alorrean garapenerako lankidetzako proiektuak kudeatu dituen erakundearen funtzioa. Euskal Fondoa erakundeak bost herrialdeetan eta kasu gehienetan tokiko udal-erakundeekin egindako proiektuetan oinarritu du lankidetzaren proiektuak.

Azken aldirian lankidetzarako ekimenak dituzten gizarte-eragile berriak sortu dira, batik bat etorkinen elkarte eta kolektiboak.

Era berean, askotariko zuzeneko lankidetzaren esperientzia teknikoaren bidez eta hezkuntzako eta sentsibilizazioko programa eta ekintzen sustapenaren bidez, udalak lankidetzako eragile aktiboaren eginkizuna hartu nahi izan du bere gain, garapeneko ekintzen finantzatzaile-funtzio nagusitik haratago.

Hala ere, gogoratu beharra dago lankidetzako erakundearen eginkizuna eta proiektuetan edo programetan duten esku-hartze maila oso anitza izan daitekeen arren, gure udal-lankidetzako praktika gehienetan eginkizun hori bigarren mailakoa izan ohi dela, hortaz, garapenerako lankidetzako jardueren emaitzak garapen-bidean dauden herrialdeetan haiek aurrera eramaten dituzten eragileen mende egon ohi dira nagusiki.

Horri gehitu behar zaio garapen-bidean dauden herrialdeetako kideen kolektiboa edo aurkako alderdia Vitoria-Gasteizko eragileen kolektiboan baino gehiago aldatzen dela, erabilitako lankidetzaren modalitateen eta proiektuen jarraipen-faltaren ondorioz.

Egoera horretatik Plan Zuzentzaileko funtsezko bi ezaugarri eratoritzen dira:

- Neurri handian udaletik kanpoko eragileek garatu beharreko plana da.
- Planaren emaitza errealak ez dira udaleko ekintza eta gaitasunen mende egongo esklusiboki, aipatutako kanpo-eragile horien borondatearen eta gaitasunen mende baizik eta, bereziki, garapen-bidean dauden herrialdeetako "alderdikideen" mende.

Lege- eta arau-testuingurua

Garapenerako lankidetzari aplikagarri zaion legeria hauetan oinarritzen da:

- 1998ko uztailaren 7ko Garapenerako Nazioarteko Lankidetzari buruzko Espainiako 23/1998 Legea,
- 2007ko otsailaren 22ko Garapenerako Lankidetzari buruzko Euskadiko 1/2007 Legea.

Hala eta guztiz ere, garrantzitsua da azpimarratzea, udalek lankidetzako eragile moduan duten eginkizunaren aitopenetik eta bi legeetako printzipio eta helburuen mendekotasunetik harago, ez Espainiako legeak, ez Euskadikoak ez dituela udalen eskumenak edo jarduera-irizpide edo -ildoak mugatzen garapenerako lankidetzaren alorrean.

Egun lege horiei jarraiki landutako bi plan daude indarrean:

- Eusko Jaurlaritzaren "Garapenerako Lankidetzaren Plan Estrategiko eta Zuzentzailea 2008-2011",
- Espainiako Lankidetzaren Plan Zuzentzailea 2009-2012.

Eusko Jaurlaritzaren 2008-2011 Plan Estrategiko eta Zuzentzailea "Eusko Jaurlaritzak sustatutako lankidetzaren (zentzu zabalean hartuta) testuinguruan abian jarritako ekimen, estrategia eta prozesuen" alorrera lotzen da eta udal-lankidetzari ez dio erreferentziarik egiten.

Erkidegoko hiru foru-aldundien 2009-2011 Garapenerako Lankidetzaren Baterako Plan Zuzentzaileak udalerririk hartzen ditu foru-lankidetzako eragileen artean eta "beste lankidetzak modu batzuk" epigrafean "*lankidetzak iparraldeko beste erakunde batzuekin*" aipatzen du, "*iparraldeko herrialdeetako administrazio deszentralizatuko erakunde publikoak*" barne, nahiz eta aipatutako lankidetzak ez dituen gehiago zehazten.

Espainiako Lankidetzaren III. Plan Zuzentzaileak (2009-2012), bestalde, "eragile publikoen arteko harmonizazio eta barne-koherentzia handiagoa bilatuko duela dio, bai politiken eta estrategien testuinguruan, bai testuinguru instrumentalean eta lankidetzaren kudeaketan". Horrez gain, bereziki planifikazio koordinatuagoa, tresnen harmonizazioa, kontzentrazio geografikoa eta Garapenerako Laguntza Ofizialaren auresangarritasuna defendatzen ditu, koordinazio handiagoa bultzatzeko, baina ez hori bakarrik, baita Espainiako Lankidetzak kide diren herrialdeekin gehiago lerrokatzeko ere.

Nazioarteko mailan, era berean, Espainiak sinatutako garapenerako lankidetzarekin lotutako hitzarmen ugari daude eta, beraz, lankidetzak publikoaren multzoari aplikagarriak dira. Horien artean hauek nabarmentzen dira:

- Bejingoko Ekintza Plataforma (1995)
- Milurteko Garapen Helburuen Aitorpena (2000),
- Garapenerako laguntzaren eraginkortasunari buruzko Parisko Adierazpena (2005).
- Garapenari buruzko Europako Adostasuna 2006/C 46/01.

Udalaren berariazko konpromisoak

1988 eta 1995eko udal-aurrekontuen onarpenarekin, hurrenez hurren, Vitoria-Gasteizko Udalak hasieran garapenerako lankidetzarako ohiko diru-sarreren (hau da, diru-sarreren 1-5 kapitulu-takako baturaren) % 0,7 eta gero % 1 emateko konpromisoa hartu zuen.

Garapenerako lankidetzari dagokionez betebeharren bat dakarten Vitoria-Gasteizko Udalak sinatutako konpromisoen artean, aipamen berezia merezi dute hauek:

- Hirian Giza Eskubideak Babesteko Gutuna
- Hiri Hezitzaileen Gutuna

2008ko ekainaren 23an onartutako Bidezko Merkataritzari buruzko Aitorpen Instituzionalak munduko pobrezia eta desberdintasunen sustraiei aurre egiten dieten prozesuak bultzatzeko eta pobrezia gainditzera eta giza garapen iraunkorra sustatzera bideratutako esfortzuekin bat egiteko udal-konpromisoa errepikatzen du. Era berean, konpromiso hauek jasotzen ditu:

- Erosketa Publiko Etikoko irizpideak txertatzeko joera duten jardueri ekitea edo haiek finkatzea
- erosketa-politiketan Bidezko Merkataritzako produktuen txertaketa sustatzea
- Garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzaren alorreko ildo estrategikoetan Bidezko Merkataritzari buruzko jarduerak sustatzea
- Erosketa Publiko Etikoa eta Bidezko Merkataritzaren eragin positiboari buruz herritarrak informatzea eta kontzientziatzea

Azkenik, 2010eko apirilaren 23an, Udalbatzak bat egin zuen Euskadiko GGKEko koordinatzaileak sustatutako pobrezia aurrerako toki-hitzarmenarekin.

Testuinguru teoriko laburra: garapenari eta elkartasunari buruzko oinarrizko balioak eta kontzeptuak

Plan Zuzentzailea funtsean tresna eragilea da, hortaz, ez du testuinguru teoriko propioa garatzea helburu; bere oinarrirako eta interpretaziorako ezinbestekoak diren kontzeptu teorikoak argitzera mugatzen da, ahal den heinean nazioarteko erakundeek onartutako edo legedi aplikagarrian bertan bildutako definizioak jasoz.

Oinarrizko balioak eta balio komunak

Plan Zuzentzaileak oinarrizko balioetat jotzen ditu Milurteko Aitorpenean zerrendatutakoak, hark zehaztutako baldintzetan (koadroa ikusi): askatasuna, berdintasuna, elkartasuna, tolerantzia, naturarekiko errespetua eta erantzukizuna.

MILURTEKO AITORPENA

Balioak eta printzipioak

Oinarrizko zenbait balio XXI. mendeko nazioarteko harremanetarako funtsezkotzat jotzen ditugu:

Askatasuna. Gizon-emakumeek beren bizitza bizitzeko, beren seme-alabak duintasunarekin hezteko eta goserik eta biolentziaren, zapalketaren edo bidegabekeriaren beldurrik gabe hezteko eskubidea dute. Eskubide horiek bermatzeko modurik onena herriaren nahian oinarritutako gobernu demokratiko eta parte-hartzaileak izatea da.

Berdintasuna. Ez zaio ez inori, ez inongo herrialderi garapenaz onura ateratzeko aukera ukatu behar. Gizon-emakumeen eskubide- eta aukera-berdintasuna bermatu behar da.

Elkartasuna. Munduko arazoei aurre egiteko kostuak eta kargak justiziarekin banatu behar dira, ekitatearen eta justizia sozialaren oinarrizko printzipioei jarraiki. Sufritzen dutenek edo etekin gutxien ateratzen dutenek onuradunenen laguntza merezi dute.

Tolerantzia. Gizakiek elkar errespetatu behar dute, sinismen, kultura eta hizkuntza aniztasun guztian. Ez da gizarte barruko eta gizarteen arteko aldeen beldur izan behar, eta erreprimitu ere ez dira egin behar; aitzitik, gizadiaren ondasun preziatutzat hartu behar dira. Zibilizazio guztien arteko bake- eta elkarrizketa-kultura sustatu behar da aktiboki.

Naturarekiko errespetua. Espezie bizidun guztien eta baliabide natural guztien kudeaketan eta antolamenduan zuhurtziaz jokatzeko beharrezkoa da, garapen iraunkorreko arauak jarraiki. Horrela soilik kontserbatu eta transmititu ahal izango dizkiegu gure ondorengoei naturak eskaintzen dizkigun aberastasun neurgaitzak. Beharrezkoa da egungo ekoizpen eta kontsumo jokaera eutsiezinak aldatzea, gure eta ondorengoen etorkizuneko ongizatearen mesedetan.

Erantzukizun komuna. Munduko garapen ekonomiko eta sozialaren kudeaketaren erantzukizuna, nazioarteko bakearen eta segurtasunaren gaineko mehatxuekin gertatzen den bezala, munduko nazioen artean partekatu behar da eta modu aldeaniztunean gauzatu. Munduko erakunderik unibertsalena eta esanguratsuena denez, Nazio Batuek eginkizun zentrala dute horri dagokionez.

Era berean, hirugarren herrialdeekin elkartzeko eta hitz egiteko Garapenari buruzko Europako Adostasunean aipatutakoa biltzen du:

“giza eskubideen errespetua, oinarrizko askatasunak, bakea, demokrazia, gobernu ona, generozko berdintasuna, zuzenbidezko estatua, elkartasuna eta justizia. EBk konpromiso sendoa du aldeaniztasun eraginkorrenekin, eta bertan, munduko nazio guztiek partekatuko dituzte garapenaren erantzukizunak”.

Giza garapena eta garapen iraunkorra

1987an Brundtland Batzordeak honela definitu zuen garapen iraunkorra: *“pertsonen egungo beharrak asetzen dituen garapena, etorkizuneko belaunaldien beharrak asetzeko gaitasuna arriskuan jarri gabe”.*

Bestalde, Nazio Batuen Garapenerako Programak (NBGP) honela definitu du giza garapena: *“aukerak zabaltzea ekartzen duen pertsonen gaitasunen hedapen-prozesua”.*

Pobrezia

“Giza pobrezia dimentsio ugaritako pobretze gisa definitzen da: bizitza luze eta osasungarriaren, ezagutzaren, bizitza maila duinaren eta partaidetzaren gabezia. Bestalde, sarreraren pobrezia dimentsio bakarreko gabezia gisa definitzen da: diru-sarrerena, interesatzen den pobretze bakarra delako edo gabezia oro izendatzaile komunera murriztu daitekeelako.

*Giza pobreziaren kontzeptuaren arabera, diru-sarrera nahikoaren falta gizakia-
ren gabezia-faktore garrantzitsua da, baina ez bakarra. Kontzeptu horren arabera,
pobretze guztia ere ezin muga daiteke diru-sarrerara. Diru-sarrera giza bizitzaren
guztizko batura ez bada, diru-sarreraren faltak ezin du giza gabeziaren guztizko
batura izan”.*

NBGP Giza Garapenaren Txostena 2001 (17. or.)

Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna

Plan Zuzentzaileak bere egiten du emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren definizioaren hurbilketa, hain zuzen, emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak adierazten duena. Honako hau xedatzen du: "berdintasuna zentzu zabalean sustatzen du, ez soilik eskubideetarako, botererako eta baliabide eta onura ekonomiko eta sozialetarako irisgarritasun-baldintzetan, baita haien erabilera eta kontrol eraginkorrerako baldintzetan ere. Era berean, aniztasunarekin errespetuz jokatzeko duen berdintasuna da eta gizon eta emakumezkoen espezifikotasunak jaso eta eredu maskulinoa inposatzeko eta orokortzeko egungo joera zuzentzen du".

Elkartasuna topaketa gisa

Plan Zuzentzaileak bere egiten du Luis Alfonso Aranguren topaketatzat definitutako elkartasunaren kontzeptua:

“Elkartasunak, topaketa gisa, lehenik eta behin, minaren eta bidegabekeriaren munduarekin topatzea eta axolagabe ez jokatzearen esperientzia esan nahi du, eta bigarrenik, beste modu batera pentsatzeko eta bizitzeko gaitasun nahikoa izatea esan nahi du: pentsatzeko gaitasuna, hau da, bizi dugun gizagabetasun eta bidegabekeriaren errealitatea ahalik eta modu objektiboenean aztertzeko, azterketaren pisuak gainezka egin gabe. Bere burua solidariotzat jotzen duenaren bizi-proiektuan elkartasuna oinarritzko zutabe izateko moduan bizitzea.”

Garapenerako hezkuntza

Eusko Jaurlaritzaren 2008-2011 Plan Zuzentzaileak honela dio: “Garapenerako hezkuntza epe luze-ertainean pertsonak munduko desberdintasunak sortzen dituzten egiturazko arrazoen ulermenean trebatzea helburu duen hezkuntza-proposamena da, eta hori sortutako eredu sozialaren eraldaketan haien inplikazioa eta konpromisoa sustatzeko”.

7 Luis Alfonso Aranguren Gonzalo “Educar en la reinvencción de la solidaridad”, Bakeaz 22 koaderno, 6. or., Bakeaz, Bilbo, 1997.

Espainiako Lankidetzaren 2009-2012 Plan Zuzentzaileak, bestalde, honela definitzen du: *“Hezkuntza-prozesu (formala, ez-formala eta informala) jarraitua, ezagutzen, jokaeren eta balioen bidez herritartasun globala bultzatzera bideratutakoa, pobrezia-aren eta bazterketaren aurkako borrokarekin eta giza garapen iraunkorraren sustapenarekin konprometitutako elkartasun-kulturaren sortzailea”*.

Herritartasun globalerako hezkuntza: bazterketa-txertaketa ikuspegia

“Garapenerako Hezkuntzaren bosgarren belaunaldia” delakoan munduko errealitatearen azterketaren paradigma-aldaketa dago; Ipar/Hego ikuspegi geografikoa bazterketa-txertaketa ikuspegiarekin ordezkatzeko da. Garapen-falta dagoeneko ez da hegoalde geografikoaren arazoa, mundu mailakoa baizik, eta planeta osoari eragiten dio. Ez da hegoaldea bera baztertua dagoena, hegoaldeko jendea baizik; baita iparraldeko biztanleria kopuru gero eta handiagoa ere. Hortaz, garapen-ereduaren krisia da, eta lana toki eta mundu mailan egin beharra dago, biak lotuta baitoaz.

Baztertua den globalizazio ekonomikoaren aurrean, Garapenerako Hezkuntzak elkartasunaren globalizazioa indartu nahi du. Horretarako, gure gizartea ez dela auzora, hirira edo herrialdera mugatzen irakatsi nahi digu; mundu guztia hartzen du eta pertsona guztiak du zerikusia. Ikuspegi horrek gizarte bakarrekota izatearen sentimendua indartzen du; gizarte horretan denek izan behar dute giza eskubideez eta mugitzeko askatasunaz gozatzeko aukera bermatuta.

Bidezko merkataritza

WFTOren arabera (World Fair Trade Organization – Bidezko Merkataritzaren Munduko Erakundea): *“Bidezko Merkataritza elkarriketan, gardentasunean eta errespetuan oinarritutako merkataritza-sistema da, eta nazioarteko merkataritzan zuzentasun handiagoa bilatzen du. Merkataritzako baldintza hobek eskaintzen dituenez eta egoera txarrean dauden ekoizle eta langileen eskubideak bermatzen dituenez, bereziki hegoaldean, garapen iraunkorra bultzatzen du”*.

Bidezko merkataritzaren irizpidetzat hauek hartu ohi dira:

- Haurren lan-esplotaziorik ez
- Langileek bidezko soldata jasotzen dute
- Gizonezkoentzako eta emakumezkoentzako ordainsari bera
- Ingurumenarekiko errespetagarria den ekoizpena
- Antolaketa demokratikoa eta parte-hartzailea
- Ekoizpenaren aurrefinantzaketa.

Udaletako lankidetzaren espezifikotasuna

Garapenerako Espainiako Laguntza Ofizialaren bereizgarrietako bat lankidetzaren publiko deszentralizatuaren ekarpenaren pisu kuantitatiboa da, hau da, komunitate autonomoen eta tokiko erakundearen ekarpena. Lankidetzaren deszentralizatu horren dinamismoa eta bereziki udal-lankidetzaren ere aipatu da.

Hala ere, udal-lankidetzaren bi ezaugarri nagusi nabarmendu behar dira:

- Garapen-ekintzak aurrera eramateko laguntza ekonomikoak (diru-laguntzak) ematean datza batez ere, hau da, udal-lankidetzaren emaile papera izan ohi dute batik bat.
- Laguntza horiek proportzio handian Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundearen (GGKE) bitartez bideratzen dira, bereziki diru-laguntzetarako deialdi-sistemaren bidez.

Hala ere, emaile eginkizun eksklusibo horren aurrean, udalek, bereziki Vitoria-Gasteizkoak, gero eta gehiago berresten dute garapenerako lankidetzaren eragilearen izaera.

Lankidetzaren eragilearen eginkizun hori udalek garapenerako lankidetzako esku-hartze esperientzietan gero eta gehiago parte-hartzeak indartzen du, eta ez soilik ekarpenekin, baita bestelako baliabide instituzionalekin ere:

- esperientzia eta kudeatzeko gaitasuna toki mailako zerbitzu eta alor ugarian; hein batean garapen-bidean dauden herrialdeetako tokiko erakundeetako kudeaketako alorrekin bat egiten du.
- kudeaketa-alor horien aniztasuna: ura, ingurumeneko saneamendua, hondakinen kudeaketa, hirigintza, gizarte-zerbitzuak, haurrei zuzendutako zerbitzuak, gazteria, hirugarren adina, osasuna eta kontsumoa, kultura eta ondare artistikoa eta historikoa, ingurumenaren iraunkortasuna eta Agenda 21, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna eta abar.
- funtzio hezitzailea alor ugarian.
- mota anitzeko sektore edo lurralde mailako sareetan gero eta partaidetza handiagoa.
- herritarrekiko hurbiltasuna eta tokiko gizarte-ehunarekiko askotariko harremanak.

Ezaugarri horietatik eta udal-erakundearen izaeratik eratorritik dira udal-lankidetzaren zenbait espezifikotasun, indar edo potentzialtasun:

- tokiko garapenean zentratua eta bereziki esperientzia eta egiten jakitea duten sektoreetan.
- udal-izaerakoa, hau da, garapen-bidean dauden herrialdeetako tokiko erakunde publikoekin elkarriketarako eta trukea izatera, erakundeak indartzera eta tokiko politika publikoaren garapenera bideratua.
- udalerriko pertsonen eta erakundearen esku-hartzearekin.
- udalerriko eta garapen-bidean dauden herrialdeetako kolektiboaren eta erakundearen topaketa errazten du.
- programa edo gai komunen inguruan beste lankidetzaren erakunde batzuekin eta garapen-bidean dauden herrialdeekin sarean lan egiteko aukerara irekita.

BIGARREN ATALA

TESTUINGURU ESTRATEGIKOA



BIGARREN ATALA

TESTUINGURU ESTRATEGIKOA

Egitekoa

Espainiako Lankidetzaren III. Plan Zuzentzailean definitutako helburuaren baldintzak zehaztuz eta mugatuz definitu du bere helburua Vitoria-Gasteizko Udalaren Lankidetzarako Plan Zuzentzaileak:

“Pertsonen, kolektiboen eta sozietateen **tokiko** garapen-prozesuetan laguntzea haien eskubide guztien erabateko erabilera lortzeko, beste eragileekin elkarlanean (tokikoak eta nazioartekoak), pobrezia-aren aurka modu koherente, integral eta eraginkorren borrokatzeko eta **neurri apalean** nazioarteko ordenaren eraldaketan lagunduko duen **elkartasun-kultura sustatzeko gure hirian**”.

Ikuspegia

Vitoria-Gasteizko Udalak egiten edo bultzatzen duen garapenerako lankidetzak tokiko giza garapenerako prozesuetan eta giza eskubideen errespetuan laguntzen du. Hiriko kolektiboen eta pertsonen laguntza eraginkorra jasotzen du, kalitatezko eta eraginkortasunezko gutxieneko baldintzak biltzen ditu eta hirian elkartasun-kultura sortzen laguntzen du.

Helburuak

- Lankidetzari eta garapenerako hezkuntzari esker hirian elkartasun-kultura sustatzen laguntzea.
- Hiriko pertsonen, kolektiboen eta erakundeen (udala barne) esku-hartze eraginkorra eskatzen duten garapenerako eta elkartasunerako lankidetzak-programak eta lankidetzak-ekintzak egitea.
- Hauek ekarriko dituzten tokiko giza garapenerako prozesuak laguntzea:
 - Herritarren bizi-baldintzen hobekuntza eta batik bat oinarritzko behar sozialen estaldura.
 - Gaitasun instituzional, sozial eta giza gaitasunen indartzea.

Helburuen formulaziotik ondorioztatzen da Garapenerako Lankidetzaren Plan Zuzentzaileak ondo berezitzako, baina osagarriak diren bi alor jasotzen dituela; laburbilduz, *garapenerako lankidetz*a deituko diogu batari, eta besteari *garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioa*.

Garapenerako lankidetzaren ikuspegiak

Udaleko Plan Zuzentzaileak Espainiako Lankidetzaren III. Plan Zuzentzailean (2009-2012) definitutako sei ikuspegiak jasotzen ditu, aipatutako planak finkatutako baldintzetan:

- Giza Garapenaren ikuspegia.
- Eskubideetan oinarritutako ikuspegia
- Garapen Iraunkorraren ikuspegia.
- Ikuspegi parte-hartzailea eta ahalduntzea
- Generoaren ikuspegia garapenean
- Prozesuaren ikuspegia. Garapena ikaskuntzako prozesu gisa.

Lerro zuzentzaileak

Zeharkako lerro, lerro estrategiko eta abarren arteko ohiko bereizketak albo batera utzita, 2009-2011 Garapenerako Lankidetzaren Plan Zuzentzaileko lerro zuzentzailetzat hartzen dira hauek:

LERRO ZUZENTZAILEAK
1. Elkartasunaren sustapena topaketa moduan eta herritartasun globalaren sustapena.
2. Lankidetzak tokiko giza garapenerako prozesu jarraituetan zentratzea.
3. Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren sustapena, bai lankidetzan, bai garapenerako hezkuntzan eta sentsibilizazioan.
4. Hiriko etorkinen kolektiboekin lotutako lankidetzaren sustapena.
5. Bidezko merkataritzaren eta kontsumo arduratsuaren sustapena eta hedapena, bereziki udaleko erosketa-politikan sartuz.
6. Udalaren esku-hartzean sakontzea, bai lankidetzak-programetan, bai garapenerako hezkuntza- eta sentsibilizazio-programetan.
7. Lankidetzak eta sentsibilizazioaren kalitate eta eraginkortasunaren hobekuntza.
8. Lankidetzako gainerako erakunde publikoekin koordinazioa, hurbileneko alorretik hasita.

1.LZ: Elkartasunaren sustapena topaketa eta herritartasun global gisa

Elkartasuna sustatzeko helburua Plan Zuzentzaileko lerro zuzentzailetzat hartzean, helburuaren dualtasuna nabarmendu nahi da:

- Batetik, garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazio alorreko helburu nagusia da.
- Bestetik, lankidetzako ekintzek ere helburu horretan lagun dezaten lortu nahi da.

Horrek berekin dakar lankidetzak-ekintzak ez mugatzea helmugan garapen-ekintzak ahalbidetzeko baliabideen kudeaketa hutsera, baizik eta hiriko pertsonen eta kolektiboen sentsibilizazioa helburu duten informazio- eta truke-osagaiak jasotzea eskatzen du eta, ahal den heinean, alorreko proiektuan protagonistak diren pertsona eta kolektiboekin topaketa egitea. Zalantzarik gabe, aipatutako osagaiak esfortzu eta baliabide osagarriak eskatzen dituzte.

2.LZ: Lankidetzaren tokiko giza garapenerako prozesu iraunkorretan zentratzea

Egindako lankidetzaren tokiko alorretan zentratzea justifikatzen duten hainbat arrazoi daude:

- Beren kabuz nazio eta eskualde mailako ekintzak bultzatzea ahalbidetzen ez duten garapenerako ekintza edo proiektuetara bideratu ohi diren zenbatekoak.
- Udalak tokiko erakunde moduan duen izaera eta esperientzia.
- Parte hartzen duten lankidetzaren erakundearen ekintzak zein testuingurutan garatzen diren ezagutzeko eta ulertzeko beharra.
- Elkartasuna topaketa moduan sustatzeko helburua; elkarren ezagutza eta trukea jasotzen dituen topaketa moduan. Horrek aldi berean kolektiboekin eta erakunde jakinekin harreman iraunkorra finkatzea esan nahi du.
- Udalak bultzatutako ekintzen gehiegizko banaketa modu egonkorrean mugatzearen kome-nigarritasuna, inpaktuen kudeaketa, jarraipena eta ebaluazioa errazteko.

3. LZ: Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren sustapena, bai lankidetzan, bai garapenerako hezkuntzan eta sentsibilizazioan

“Sexuen arteko berdintasuna eta emakumearen ahalduzkoa” Milurtekoko Garapen helburue-tan hirugarrena izanik, gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren eta garapeneraren arteko lotura ez da eztabaidarako arrazoi.

Garapenerako lankidetzari dagokionez, gizon eta emakumeen arteko berdintasun eraginkor-rrerako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak lankidetzarako lehentasunetat hartzen du espezifikoki gizon eta emakumeen arteko berdintasuna. Era berean, *Europar Batasunaren “Gizon eta emakumeen arteko genero-berdintasunerako lan-plana 2006-2010” planak* EBko ga-rapen-politika lehentasunezko 6 esku-hartze eremuen artean jasotzen du.

Bestalde, “Garapena Laguntzeko Batzordearen (GLB) gizon eta emakumeen berdintasune-rako eta emakumea ahalduzko garapenerako lankidetzaren lerro zuzentzaileek” (1998) az-pimarratzen dute gizon eta emakumeen arteko berdintasunezko helburuak aplikagarriak direla garapenerako lankidetzaren ikuspegi guztietarako, GGKE bidezko lankidetzaren barne.

Gizon eta emakumeen arteko berdintasunezko helburuak lortzeko estrategiei buruzko za-lantzarik ere ez dago; izan ere, Beijinggo Ekintza Plataformak planteatutako bide bikoitzetik abiatzen direla onartzen da nazioarte mailan:

- alde batetik, emakumeen ahalduzkoaren sustapena
- bestetik, *mainstreaming* edo generoaren transbertsalizazioa politika guztietan

Bestalde, berdintasunari buruzko Europako politiken dokumentuek (udalak gizon eta emaku-meen arteko berdintasun-politiketan egun garatzen duen lan-estrategia dokumentu horie-tan oinarritzen da), besteak beste, “Gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako lan-plana 2006-2010” –COM (2006) 92– planak, *mainstreaming* edo generozko transbertsalizazioa eta berdintasunezko politikak edo espezifikotasunak konbinatzen dituen estrategia dual delakoari egiten diete erreferentzia⁸.

⁸ *Gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako Vitoria-Gasteizko II. Plana, 2009-2011.*

Nolanahi ere, kontzeptu horiek argitu egin behar dira:

MAINSTREAMING EDO GENEROZKO TRANSBERTSALIZAZIOA

Helburu hau du: “prozesu politikoen (ber)antolaketa, hobekuntza, garapena eta ebaluazioa, generozko ikuspegia politika guztietan, normalean neurri politikoak hartu ohi dituztenek maila guztietan eta etapa guztietan txerta dezaten”.*

Generozko ikuspegia politika guztietan (dagoeneko existitzen direnak eta orokorrak) txertatzeko beharra azpimarratzen du, horiek aldi berean gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ekar dezaten.

Definizioak mainstreaming-eko subjektu aktiboak politika desberdinetako ohiko eragileak izatea dakarrela nabarmentzea garrantzitsua da.

* *Hainbat autore: Mainstreaming de género. Marco conceptual, metodología y presentación de “buenas prácticas”, Emakumearen Institutua, Madril 1999, 26. or..*

EMAKUMEAK AHALDUNTZEA

Espainiako Lankidetzaren “Generoa garapenean” estrategiak ahalduntzeari buruz egiten duen definizioan hau nabarmentzen du:

“ahalduntzeak dimentsio bikoitza du: batetik, emakumeek bakarka eta kolektiboki duten botereaz kontzientzia hartzea esan nahi du. Ildo horretatik, emakume bakoitzak pertsona gisa duintasuna eta autoestimua berreskuratzearekin du zerikusia. Bigarrenik, dimentsio politikoa du. Emakumezkoak erabakiak hartzen diren lekuan egotea bilatzen du, hau da, boterea dagoen lekuan. Emakumezkoen egoera sozial, ekonomiko eta politikoa indartzean datza, botere terminoa “zertarako” eta ez “zeren gaineko” ikuspegitik hartuta; horrek gizon eta emakumeen artean oraindik ere existitzen diren botere-harremanak ezabatzea ekarriko luke. Azken batean, emakumeen aukerak eta autonomia mugatzen dituzten eta haien osasunean eta ongizatean eragin kaltegarriak dituzten botere-harremanak aldatzea esan nahi du”.

EAEko Berdintasunerako V. Planak (2010-2014) bestalde, emakumeen ahalduntzearen “ardatza” autonomia pertsonalerako programekin, balioen aldatzarekin, partaidetza eta eragin politikoarekin eta baliabideetarako irisgarritasun eta kontrolarekin lotzen du.

GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUN-POLITIKA ESPEZIFIKOAK

Helburu nagusia eta zuzenena generoaren berdintasuna duten horiek dira.

Gizon eta emakumeen arteko aldeak ezabatu edo murrizteko zuzeneko helburura bideratutako hainbat neurri ezartzen dituzte.

Abiapuntua desberdintasun-egoera da.

Politika orokorretan nekez jaso daitezkeen arazo jakinei berehala egin diezaiekete aurre.

Politika horietako eragileak generozko berdintasunean espezializatutako erakundeak edo egiturak dira.

GENEROZKO IKUSPEGIAREN TXERTAKETA

Generozko ikuspegiaren txertaketa plano instrumentalago batean ulertu beharra dago eta gizon eta emakumeen berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen baldintzetan definitu daiteke.

“Generozko ikuspegiaren integrazioztat jotzen da gizon eta emakumeen egoera, baldintza, itxaropen eta behar desberdinen kontsiderazio sistematikoa, aldeak ezabatzea eta berdintasuna politika eta ekintza guztietan (maila guztietan eta planifikazio-, exekuzio- eta ebaluazio-fase guztietan) sustatzera bideratutako helburu eta ekintza espezifikokoak jasoz”.

Plan Zuzentzailea, ondorioz, hiru premisa arruntetatik abiatzen da:

- genero-berdintasuna garapenerako ezinbestekoa baldintza da
- garapenerako lankidetzajarduerak eta garapenerako hezkuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak ez dira neutralak generozko baldintzetan
- gizon eta emakumeen berdintasun-helburuak emakumeen ahalduzko-ekintza espezifikokoak eta gizon eta emakumeen berdintasun-ekintzak konbinatuz eta generoaren ikuspegia lankidetzako jarduera orokorrean txertatuz lortzen dira

Hala ere, Vitoria-Gasteizko Udalak garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzaren alorrean aurrera eraman dezakeen estrategia definitzerako garaian, ezin dira albo batera utzi alderdi hauek:

- Egindako lankidetzaren politiken sustapenean baino gehiago askotariko eragileen isolatutako ekimenen eta proiektuen sustapenean oinarritzen da.
- Berdintasuneko neurri espezifikoko txertatzea edota generoaren ikuspegia garapen-ekintzetan txertatzea ekintza politikoa da. Lankidetzako egungo eragile guztiek nahitaez partekatzen ez duten ikuspegi zehatza eskatzen du eta, onespren erretorikotik haratago, erresistentziak sortzen ditu.
- Ahalduzko neurri espezifikoen txertaketa edo berdintasunaren edota generoaren ikuspegiaren txertaketa eraginkorra garapenerako proiektu eta programetan erakunde finantzatuak edo lankidetzako erakundeen mende baino gehiago, programa horien tokiko arduradunen mende dago; eta udalak horien ikuspegiaren gainean eragiteko gaitasun mugatua du.
- Kontsiderazioen enuntziatu soila eta genero-helburuena onartzeko aurkezten diren proiektuen dokumentuetan, ez da genero-ikuspegiaren txertaketa eraginkorrerako nahikoa berme.

Muga horien ondorioz, eta Vitoria-Gasteizko Udalak 1999. urtetik gizon eta emakumeen benetako berdintasun-ikuspegiaren oinarritutako lankidetzaren sustatzeko egin dituen ondoko estrategietako esperientziak bereziki kontuan hartuta, Plan Zuzentzailea ideia honetatik abiatzen da: udaleko lankidetzaren politikan eragilearen multzoa inplikatu dezakeen *mainstreaming* edo generoaren transbertsalizazioko estrategia planteatzea ez da errealista, ezta bultzatutako ekintza guztiek “genero-ikuspegia txertatu dezaten” ahalegintzea ere (aldeak murriztera eta berdintasuna bultzatzera bideratutako helburu eta jarduera espezifikokoak txertatzearen ildotik), egun proposatutako lankidetzajarduera gehienak gutxiesten direnean edo genero eta berdintasun kontzeptuak arinki hartzen direnean salbu.

Horrez gain, ez litzateke koherentea izango tokiko administrazioak lankidetzaren ekintzetarako generoaren ikuspegiaren txertaketari dagokionez beste arloetan baino eskaera maila askoz ere altuagoa izatea.

Hori dela eta, Plan Zuzentzaileak ez du baldintza absolututzat planteatzen lankidetzako eta garapenerako hezkuntza- eta sentsibilizazio-jardueretarako generoaren ikuspegia txertatzea.

Horrek ez du esan nahi gizon-emakumeen berdintasunaren sustapenean aurrera egiteari uko egiten zaionik, bereizitako estrategia aukeratzen dela baizik; lehenik eta behin, proiektu eta jarduera guztietarako gutxieneko hasierako eskakizunak finkatzen ditu; bigarren, ekintza jarraituetan aurrerapen progresiboen beharra planteatzen du eta, azkenik, emakumeak ahalduntzeko eta gizon-emakumeen berdintasunerako helburuei erantzuten dieten ekintzei lehentasuna ematen die.

Hauek dira lankidetzeta eta garapenerako hezkuntza- eta sentsibilizazio-jarduera guztietarako finkatutako gutxieneko baldintza aplikagarriak eta ezinbestekoak:

- Ekintza inolaz ere ez da gizon-emakumeen tratu desberdinean oinarritzen edo ez du hura sortzen eta emakumeen zuzeneko edo zeharkako diskriminaziorik ere ez du eragiten.
- Ekintzek garatutako esku-hartze alorrean ez dute desberdintasun maila handiagoa sortzen. Horretarako, proiektuak berdintasunaren helburuan duen eragina aztertu beharko da eta negatiboa den kasuan, aurre egiteko neurriak aurreikusi beharko dira.
- Proiektuak desberdintasuna murriztera edota gizon-emakumeen berdintasuna sustatzera bideratutako hainbat neurri jaso beharko ditu. Horien artean gutxienez eskatu beharrekoa da proiektuak emakumeen partaidetza bultzatzea, baita haien lanpostuetarako eta sortutako baliabideetarako irisgarritasuna bultzatzea ere.

Izaera jarraituko ekintzetan, esku-hartzeak genero-ikuspegi mugatutik abiatu daitezkeela onartuta ere, genero-ikuspegiaren txertaketarantz, aurrerapen zehatzen betekizun progresioa eskatuko da, ekintzak jarraitzeko baldintzatzat.

Bestalde, proiektuen eta programen bi kategoria lehentasunezkoetat jotzen dira eta balorazio-sistemetan haien alde egiten da:

- gizon-emakumeen berdintasunerako edo emakumeen ahalduntzerako ekintza espezifikoak jasotzen dituztenak eta gizon-emakumeen berdintasuneko ikuspegi eta politika esplizituei erantzuten dietenak
- zuzeneko helburutzat gizon-emakumeen berdintasuna ez izan arren, genero-ikuspegiaren behar bezalako txertaketa dutenak eta berdintasunaren helburuaren bilakaeran hobekuntza eraginkorrak sortzen dituztenak.

Horrez gain, udalak sustatutako garapenerako lankidetzeta-politikaren berdintasun-printzipioaren garapen handiagoa eta eraginkorragoa bultzatuko duten ekintzen edo neurrien aurreikuspena egin beharko da.

4. LZ: Hiriko etorkinen kolektiboekin lotutako lankidetzaren sustapena

Lerro zuzentzaile horren formulazioan baterako garapen kontzeptuaren erabilera saihestu da; izan ere, horrek maiz izaera oso zabala eta handinahia izaten du, garapenerako lankidetzatik haratago doana eta betetzen zailak diren itzaropenak sor ditzakeena.

Garapenaren eta migrazioen arteko harremanak nahiko konplexuak dira, etorkinen kolektiboekin jatorrizko eremu geografikoetan benetako garapena sustatzeko lankidetzeta-ekintza mugatuak nahikoak direla eta migrazio-fluxuetan modu erabakigarrian eragin dezaketela ez ulertzeko adina.

Lehenik eta behin, etorkinen kolektiboekin artean sor daitezkeen garapen-ekimenak bultzatu nahi dira. Lerro hori ez da zeharkakoa eta ez da programa guztietara zabaltzeko modua, baina topaketa moduan eta tokiko garapen moduan elkartzatuz sustatzeko lerro zuzentzaileekin bat datorrela nabarmentzea garrantzitsua da, oinarri hauek baititu:

- garapen-bidean dauden herrialdeetako kolektiboekin harremanetan jartzen diren herritarren kolektiboekin zuzeneko esku-hartzean oinarritutako lankidetzaren ikuspegia, berezita-

- sun moduan hartuta migratzaileen kasuan lotura hori aurretik existitzen dela
- herri jakinetan iraunkortasunez zentratzeko interesa, kasu horretan, kolektibo migratzaileen jatorrizko lurraldeetan

Lankidetzaren intereseko beste alderdi batzuk hauek dira:

- etorkinek beren jatorrizko lurraldeez eta gizarteaz duten ezagutza ezin hobea
- kolektibo horiek eta haiek ordezkatzeko dituzten elkarteak, nahi izanez gero, udal-lankidetzako eragile bihurtu daitezela, horrela, herritar moduan dituzten eskubideez baliatuko dira eta udal-lankidetzaren parte hartzen duten hiriko beste kolektibo eta erakundeekin erlazionatu
- lankidetzarekin lotutako sentsibilizazio-ekintzetako beharrezko integrazioak kulturarteko ikuspegia ematea, hiriko bizikidetzaren laguntzeko
- familia transnazionalen arteko komunikazioa erraztearen garrantzia eta, oro har, migratzaileen eta haien jatorrizko komunitateen artekoa
- jatorrizko herrialdeetako erakundeekin baliagarriak izan daitezkeen elkartrukeak garatzeko aukera, bereziki, etorkinekin lotura gehien duten udal-zerbitzuetarako.

Vitoria-Gasteizko Udalak dagoeneko badu esperientziaren bat alor horretan, hain zuzen, Kolonbiako Ibagué komunitatearen kasuan, eta jabetzen da lerro horren konplexutasunaz eta zailtasunaz, hori aurrera eramatea hauen mende baitago bereziki:

- kolektibo horiek lankidetzaren proiektuetan parte hartzeko duten interesa
- hiriko komunitate etorkinen ezagutza, bereziki haien jatorriari buruzkoa, udalerrri edo eremu beretik etorritako kolektibo kopuru handia dagoen jakiteko
- lankidetzaren kudeaketan esperientzia duen GGKE eta kolektibo horien arteko lankidetzarako nahiak eta aukerak
- laguntzeko beharrezkoak diren tresna edo ekintzen malgutasuna; horrela, lankidetzaren kudeaketan espezializatu gabeko, baina jatorrizko tokien garapenean interes handia duten elkarteak udal-lankidetzatik kanpo gera ez daitezten

5. LZ: Bidezko merkataritzaren eta kontsumo arduratsuaren sustapena eta hedapena, bereziki udaleko erosketa-politikan sartuz.

Duela urte batzuetatik hona, bidezko merkataritzarekin eta kontsumo arduratsuekin lotutako hainbat ekimen bultzatu dira, Gasteizko herritarrei nahiz udalari zuzenduta.

Azken horien artean, 2002. urtetik gizarte etxeetako eta kirol-instalazioetako edari beroen makinetan bidezko merkataritzako kafea sartzeko betebeharra nabarmendu behar da. Horrekin batera, kafearen benetakotasuna bermatzeko, aldian behingo kontrolak egin dira SETEM GGKEarekin sinatutako hitzarmenaren bidez.

2008ko ekainaren 23an, udalean ordezkariak duten udal-alderdi politiko guztiek sinatuta, Vitoria-Gasteizko Udalean Bidezko Merkataritzaren aldeko Aitorpen Institutuzionala onartu zen eta honakoa jasotzen du: "bidezko merkataritza garapenerako lankidetzarako tresna eraginkorra, hauetan egiten duen ekarpena aitortuz: Giza Garapen Iraunkorra, generozko ekitatea, ekoizleen garapen soziala eta ekonomikoa, aberastasunaren banaketa ekitatiboagoa, ingurumen-oreka eta kulturaren errespetua".

Praktikan, sinatutako dokumentuak erosketako politika etikoak garatu, garapenerako lankidetzaren alorrean bidezko merkataritzari lehentasuna eman eta herritarren artean printzipioak zabalduko dituen lan-plana abian jartzeko konpromisoa ekartzen du.

Aipatutako Aitorpen Instituzionalean oinarrituta, bidezko merkataritzako produktuak hainbat udal-zerbitzu eta sailetan pixkanaka txertatzera joko da eta hirian bidezko merkataritza lantzen duten GGKEen eta Vitoria-Gasteizko Udalaren artean hitzarmena finkatu da lankidetzaren testuinguruan, herritarrei informatzeko eta sentsibilizazio-jarduerak egiteko.

Zuzentzailea ez den lerro hori ez da zeharkakotzat jotzen.

6. LZ: Udalak lankidetza-programetan nahiz garapenerako hezkuntza- eta sentsibilizazio-jardueretan duen esku-hartzean sakontzea

Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren funtzioetatik haratago, Vitoria-Gasteizko Udalaren esku-hartzetzat hartu behar dira lankidetza-programetako eta garapenerako hezkuntza- eta sentsibilizazio-jardueretako askotariko modalitate eta partaidetza mailak:

- garapen-bidean dauden herrialdeetako erakundeekin –bereziki tokiko erakundeekin– lankidetza-hitzarmenen testuinguruan edo tokiko erakundeen partaidetza, borondatezko lankide moduan, espezifikoki aurrez ikusten duten programen testuinguruan erabateko inplikazio instituzionala
- garapenerako lankidetza-proiektuetan espezializatutako udal-zerbitzuen laguntza teknikoa, maila desberdinetan
- Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak kudeatutako garapenerako hezkuntza- eta sentsibilizazio-programetan udaleko beste zerbitzu eta sail batzuen laguntza
- Garapenerako hezkuntza- eta sentsibilizazio-edukiak udaleko beste sail batzuetako hezkuntza-programetan sartzea
- kontsumo publiko etikoko praktikak udaleko erosketa- eta kontratazio-politiketan txertatzea

Esku-hartze hori ez da udalera zorrotz mugatzen, baizik eta hainbat erakunde autonomo eta udaleko enpresa jasotzen ditu.

Lankidetzan udal-zerbitzuen esku-hartze handiagoa justifikatzen duten arrazoiak hauekin dute zerikusia:

- elkartasunaren sustapena udaleko langileen artean
- lankidetza-ekintzen kalitatea eta eraginkortasuna; izan ere, zerbitzuek egiten jakite teknikoa eta kudeaketa-esperientzia dute eta erabat baliagarriak izan daitezke lankidetza-ekintzak balioesteko eta garatzeko, nahiz eta ohiko lanaren eta horien arteko testuinguruaren eta baliabideen artean aldeak handiak diren
- Garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioaren eraginkortasuna, dauden baliabideen aprobetxamendua eta udaleko hezkuntza-ekintzen koherentzia, publiko espezifikoa izan zuzendutako sentsibilizazio- eta hezkuntza-programa egonkorretako hainbat zerbitzu baitaude eta horietan garapenerako hezkuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak zeharka sartzeak erabateko zentzua baitu
- udaleko langileentzat garapen-bidean dauden herrialdeetako pertsonekin eta profesionalen harremanetan jartzeak eta esperientziak partekatzeak dakarren aberastasun pertsonala eta profesionala.

Hortaz, udaleko lankidetzarako programa eta tresna guztiei eragiten dien lerro zuzentzailea da, baina ez du zertan islatu diru-laguntza jasotzen duten ekintza guztietan.

7. LZ: Lankidetzaren eta sentsibilizazioaren kalitate eta eraginkortasunaren hobekuntza.

Kalitatea eta eraginkortasuna hobetzeko lerro zuzentzailea programa eta tresnen multzoan hartu behar da kontuan.

Kalitatea eta eraginkortasuna hobetzeko ekintza espizifikoen artean hauek aurrez ikusten dira bereziki:

- Proiektuen identifikaziorako baliabideak eta esku-hartze estrategien definizioa.
- Lankidetzaren ekintzetarako egokienak diren tresna administratiboak erabiliz emandako diru-laguntzen kudeaketa erraztea.
- Eragileei zuzendutako trebakuntza-ekintzak, garapen-bidean dauden herrialdeetako alderdikideei zuzendutako trebakuntzak antolatzea bereziki konplexua dela aitortuz.
- Esku-hartzen duten eragileei ikasteko balio dieten ebaluazioak egitea eta ondorioak sozializatzea.

8. LZ: Lankidetzako gainerako erakunde publikoekin koordinazioa, hurbileneko alorretik hasita.

2007ko Espainiako lankidetzaren GLBaren azterketaren arabera, lankidetzaren deszentralizatu publikoko eragileen ugaritasuna Espainiako lankidetzaren aukera garrantzitsua da. Hala ere, haren koordinazio-faltak koherentziaren eta multzoaren eraginkortasun-galera dakarrela dio.

Egoera hori Euskal Autonomia Erkidegoan ere errepikatzen da. Horrekin guztiarekin, Vitoria-Gasteizko Udalaren ibilbidetik hiru gertakari positibo nabarmendu behar dira:

- Euskal Fondon lankidetzaren tradizio gehien duten euskal udalen partaidetza eta, horrekin, esperientziak trukatzeko testuingurua
- 2000. urtetik Vitoria-Gasteizko Udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren artean finkatutako koordinazio- eta osagarritasun-harremana
- Eusko Jaurlaritzak, hiru foru-aldundiek eta EAeko udalen ordezkariak osatzen duten Erakunde arteko Batzordea sortzea (Lankidetzarako euskal Legeak sortutakoa).

Vitoria-Gasteizko Udalak konpromisoa hartu du euskal erakundeek bultzatutako eta egingutako lankidetzaren hobetzea ekarriko duten ekimenak bultzatzeko, ahal duen heinean, eta lehentasunez jotzat jotzen dituzten alderdi hauek:

- Euskal lankidetzaren publikoaren informazioa biltzea eta eskuratzea,
- prozeduren harmonizazioa, bereziki, GGKEei zuzendutako diru-laguntzen deialdiekin lotuta,
- erakundearen artean, hasiera batean eredu-izaerakoak izango diren ekintza koordinatuak edo baterako programen esperientzia eraginkorrak abian jartzea
- garapenerako informazio, sentsibilizazio eta hezkuntzaren koordinazioa.

Ondo bereizitako bi alor: garapenerako lankidetzaren (CD) eta garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioa (SyED)

Vitoria-Gasteizko Udaletik garatutako lankidetzaren elkarren artean erabat desberdinak, baina aldi berean osagarriak diren bi alor jasotzen ditu:

- garapen-bidean dauden herrialdeetako ekintzak: garapenerako lankidetzaren programak, giza eskubideen babesa, larrialdiko esku-hartzeak eta abar.
- ekintza hirian: Gasteizko herritarrei zuzendutako garapenerako informazio, sentsibilizazio- eta hezkuntza-programak.

Sinplifikatze aldera, esan liteke lehenengo kasuan “hegoaldean jardutea” eta bigarrean “Gasteizen jardutea” dela.

Lehenengo alorra da zalantzarik gabe baliabide ekonomiko gehien xurgatzen dituen, baina bigarrenak erakunde propioa izan behar du. Hainbat arrazoi daude horretarako:

- batetik, udalak herritarrengan elkartzunezko kultura sustatzeko helburu nagusia planteatzeko duen nahia dela eta
- hiriko hezkuntza-eragileek eta elkartzun-sustatzaileek lankidetzaren eragileekin nahitaz bat egiten ez dutelako
- ezin direlako lankidetzarako irizpide eta tresna berak aplikatu “hegoaldean” eta hiriko garapen-ekintzetan

Hori dela eta, planak argi eta garbi bereizten ditu “lankidetzaren” alorra eta “garapenerako hezkuntzaren eta sentsibilizazioaren” alorra. Horrek ez du esan nahi lankidetzaren alorrek elkartasunaren sustapenaren helburua bultzatu behar ez duenik, ezta bataren eta bestearen artean loturak izan behar ez direnik ere.

Politiken koherentzia

Vitoria-Gasteiz bezalako hiri ertaineko politikek izan dezaketen inpaktu global mugatua eta udal-erakundearen berezko eskumenak direla eta, tokiko politikek askotariko zeharkako ondorioak izan ditzaketen arren, ez dira asko garapen-bidean dauden herrialdeetan zuzeneko eragina duten udal-politikak. Hala eta guztiz ere, Plan Zuzentzaileak hiru alor jakin adierazten ditu eta horietarako garapenerako lankidetzaren politikarekiko koherentzia planteatu behar da, ez garapen-bidean dauden herrialdeetan duten zuzeneko eraginagatik, balioen transmisioan duten eraginagatik baizik:

- Immigrazioa: hirian bizi diren etorkinekiko jarrera positiboa, haien kulturaren balioespina eta bizikidetzaren sustapena.
- Erosketa publikoa: klausula sozialak sartzearekin batera egindako txertaketa, bidezko merkataritzako produktuen erosketa bultzatzeko erosketa publikoko irizpideei buruzko 2008/11/21eko udaleko plenoak onartutako mozioa sustatzen duena.
- Udaleko askotariko eremuetako hezkuntza- eta sentsibilizazio-programak.

HIRUGARREN ATALA

LANKIDETZAN JARDUTEA
Lankidetzaren alorreko
testuinguru operatiboa



HIRUGARREN ATALA

LANKIDETZAN JARDUTEA

Lankidetzaren alorreko testuinguru operatiboa

Garapenerako lankidetzaren alorreko Plan Zuzentzailearen testuinguru operatiboa lankidetzako eragileak zerrendatuzetik, alorreko helburu espezifikoak definituzetik eta aurrez ikusitako lankidetzarako tresnetatik abiatzen da. Udalaren lankidetzaren “eraginkortasunerako printzipioen” aplikazioari buruz hainbat hausnarketa egin ondoren, lerro zuzentzaileek lankidetzaren alorrean dituzten eraginak zehazten dira eta lehentasun geografiko eta sektorialeiei dagokienez jarraitutako irizpideak esplizitu egiten dira. Azkenik, lankidetzako tresnen deskribapen eskematiko eta itxi gabekoa egiten da.

Garapenerako lankidetzarako udal-eragileak

Udalaren lankidetzak hainbat eragileren elkarketari esker gauzatzen dela ondorioztatzen du Plan Zuzentzaileak:

- Lankidetzak-jardueretan parte hartzen duten garapen-bidean dauden herrialdeetako hainbat elkarte, erakunde eta eragile.
- Hirian presentzia, jarduera eta egitura duten GGKEak.
- Hiriko beste eragile sozial batzuk:
 - Lankidetzarako ekimenak dituzten etorkinen kolektiboak edo elkarteak.
 - Lankidetzak-proiektuetan parte hartuko duten beste alor batzuetako elkarteak, kolektibo sozialak, erakundeak eta profesionalak.
- Udala lankidetzako eragile:
 - Garapenean Laguntzeko Zerbitzua, udaleko lankidetzaren kudeaketako arduraduna.
 - Laguntza teknikoak ematen duten udaleko zerbitzuak eta erakundeak (lankidetzako proiektuen balorazio teknikoak, proiektuetarako aholkularitza eta laguntza teknikoak, trebakuntza- eta truke-ekintzak).
 - Lankidetzan eta laguntzen kudeaketan esku hartzen duten udaleko beste zerbitzu batzuk.

- Vitoria-Gasteizko Udala Euskal Fondoa (Euskal toki-entitate kooperatzaileen elkartea) erakundeko kide da.
- Udalak parte hartzen du lankidetzako beste sare eta koordinazio-mahai batzuetan.
- Udalak partaidetza du lankidetzako programak edo ekimenak dituzten autonomia, estatu, Europa edo nazioarte mailako erakundeetan.

Lankidetzaren alorreko helburu espezifikoak

Helburu espezifikotzat ondorioztatzen dira dagoeneko aipatutako hauek:

- Hiriko pertsonen, kolektiboen eta erakundeen (udala barne) esku-hartze eraginkorra eskatzen duten garapenerako eta elkartasunerako lankidetzak-programak eta lankidetzak-ekintzak aurrera eramatea.
- Hauek ekarriko dituzten tokiko giza garapenerako prozesuak laguntzea:
 - Herritarren bizi-baldintzen hobekuntza eta batik bat oinarrizko behar sozialen estaldura.
 - Gaitasun instituzional, sozial eta giza gaitasunen indartzea.

Garapenerako lankidetzaren alorreko tresnak

Bereizi egin behar dira lankidetzak motak, lankidetzak dituen osagaiak eta kudeaketarako tresnak; horiek maiz finantziazio-lerroak izan ohi dira.

Lankidetzak motak

Egin beharrezko lankidetzak *motei* dagokienez, udaleko garapenerako nazioarteko lankidetzak hauetara mugatuko da:

- Garapenerako lankidetzak (toki eta udal mailan).
- Giza eskubideen babesak.
- Larrialdiko laguntza.

Plan Zuzentzaileak irauten duen artean, uko egiten zaio ekintza humanitariorako tresna iraunkorrek izateari, baina puntualki ekintza humanitarioko esku-hartzeak bultzatu ahal izango dira, udalak espresuki adostasuna baldin badu, 2009an Gazako krisiarekin gertatu zen moduan.

Lankidetzako ekintzaren osagaiak

Alde batetik, udalak egin ditzakeen lankidetzako oinarrizko hiru osagai bereizi daitezke:

- GGKEetako edo beste eragile batzuetako proiektuetarako edo programetarako laguntza ekonomikoak (diru-laguntzak); diru-laguntzen eta hitzarmenen deialdien bidez ematen dira.
- Teknikako lankidetzak, hau da, izaera teknikoko aholkularitza, laguntza, trebakuntza eta trukerako ekintzen multzoa.
- Garatutako lankidetzak-ekintzekin lotutako informazioa eta sentsibilizazioa.

Larrialdiko laguntzaren eta giza eskubideen babesaren kasuan, udalaren esku-hartzea laguntza ekonomikora, informaziora eta sentsibilizaziora mugatuko da.

Lankidetzako tresnak eta finantziazio-lerroak

Plan Zuzentzailearen ondorioetarako, tresnatzat jotzen ditugu udalaren lankidetzakudeatzeko modalitate jakinak, hau da:

GGKEei eta hiriko beste erakunde batzuei zuzendutako finantziazio-lerroak

Lankidetzakudea hauen bidez kudeatuko da:

- lankidetzakudea-proiektuetarako urteko diru-laguntza deialdia
- hainbat urtetarako deialdia
- ekintza bakarra hautatu nahi den salbuespen-kasuetarako proiektu-lehiaketak
- giza eskubideen babeserako urteko deialdia
- AEDSko Lagunen Elkartearekin hitzarmena; Saharako herriak bizi duen okupazio- eta erbestealdi-egoera berezia eta udalak harekiko duen elkartasun-tradizioa dela eta mantentzen da
- GGKEekiko hitzarmen bereziek salbuespen-izaera izango dute
- Larrialdietarako Arabako Funtsa

Udal-izaerako lankidetzakude tresnak

Udal-izaerako lankidetzakude-tresnatzat jotzen ditugu hauek:

- zuzeneko aldeko lankidetzakude hegoaldeko erakundeekin, aldi baterako hitzarmenen bidez araututa
- Euskal Fondoaren testuinguruan bideratutako lankidetzakude; udal erakunde horretako kide da, eta bien arteko hitzarmena sinatu zuten 1998an
- beste lankidetzakude-eredu batzuk:
 - goi mailako erakundeek bultzatutako programak (Eusko Jaurlaritza, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentzia, Europako Batzordea, nazioarteko erakundeak, batez ere NBE sistemakoak), tokiko erakundeen partaidetzara irekiak
 - udal-sareetako proiektuak edo programak

Garapen-bidean dauden herrialdeekin egindako zuzeneko hitzarmenak, Euskal Fonda erakunde programak eta udalak parte har dezakeen eremu zabalagoko programak dira lankidetzakude teknikoak (eta ez soilik ekonomikoak) garatzeko testuinguru egokiena.

“Eraginkortasunerako printzipioak” eta udal-lankidetzarako egokitzapena

“Garapenerako laguntzaren eraginkortasunari buruzko Parisko Aitorpenean” hartutako konpromisoek (ikusitaula) herrialde emaileen eta kide diren herrialdeen arteko harremanari egiten diete erreferentzia. Hori horrela, udalaren lankidetzari dagokionez aplikazio mugatua dute.

Hala ere, hauek helburutzat proposatzen dituzten heinean:

- garapenerako laguntzaren eraginkortasuna areagotzea
- herrialdeetako egoeretara egokitzea eta aplikatzea
- adierazleak, egutegiak eta helmugak finkatzea
- inplementazioa gainbegiratzea eta ebaluatzea

aitatutako printzipioak, era berean estatuen konpromisoak direnak, udal-lankidetzaren testuinguruan interpretatu eta bertara egokitu daitezke.

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN ERAGINKORTASUNARI BURUZKO PARISKO AITORPENA

Jabetzea, lerrokatzea, harmonizatzea, emaitzen arabera kudeatzea eta elkarrekiko erantzukizuna (laburpena)

Jabetze-printzipioa

Kide diren herrialdeek garapen-politiken eta estrategien gaineko botere eraginkorra dute eta garapen-ekintzak koordinatzen dituzte.

Lerrokadura

Emaleek kide diren herrialdeetako estrategia, erakunde eta garapeneko prozedura nazionaletan oinarritzen dute beren laguntza guztia.

Kide diren herrialdeek garapenerako gaitasuna emaleen laguntzarekin indartzen dute.

Harmonizazioa

Emaleen ekintzak harmonizatuagoak, gardenagoak eta kolektiboki eraginkorragoak dira.

Emaleek xedapen komunak inplementatzen dituzte eta prozedurak sinplifikatzen dituzte.

Osagarritasuna: lanaren banaketa eraginkorragoa.

Emaitzetara bideratutako kudeaketa

Baliabideak administratzea eta emaitzetara bideratutako erabakiak hobetzea.

Elkarrekiko erantzukizuna

Emaleak eta kideak dira garapenaren emaitzen erantzuleak.

Udal-lankidetzatik aztertuta, bost printzipioek planteatzen dituzte garapen-bidean dauden herrialdeetako toki-erakundearen eginkizunarekin lotutako alderdiak, proiektuen benetako jabetzea eta proiektuetako eragilearen erantzukizuna, udala barne.

Garapen-bidean dauden herrialdeetako toki-erakunde publikoen eginkizuna

Lerrokadura-printzipioaren tokiko garapenerako transposizioa baldintza hauetan adieraz liteke: “emaleek tokiko estrategietan eta erakundeetan eta kide diren herrialdeetako garapeneko prozedura nazionaletan oinarritzen dute laguntza guztia”. Garapen-bidean dauden herrialde gehienetan duela gutxi arte tokiko erakundearen eginkizunak garapen-politiketan pisu gutxi zuela eta herrialde horietan tokiko administrazio publikoek tokiko garapen-prozesuak bideratzeko finkapen instituzionala eta beharrezko baliabideak falta zituztela aitortu arren, udal-lankidetzak erakunde horien planekin eta ekimenekin bultzatzen dituen garapen-ekintzak koordinatzeko eta haien gaitasuna ahal den heinean indartzeko kezka berezia izan behar du.

Proiektuez jabetzea

Gure lankidetzaren deszentralizatuaren abiapuntuak zerikusi gutxi du emaleek programak maiz inposatu dituzten estatu-erakundeekin. Nolanahi ere, garrantzitsua da azpimarratzea GGKE edo beste erakunde batzuekin batera finantzaturako lankidetzaren proiektuetako “jabetze” ga-bezia tradizionala; izan ere, jabetze horrek lausotzeko joera du parte hartutako eragilearen katean:

- Erakunde finantzatuak proiektuaren jabetze maila oso mugatua dute. Proiektua diru-laguntza jasotzen duen erakundearen erantzukizuna dela jotzen dute.
- GGKEak edo erakunde kudeatzaileak proiektuaren azken formulazioaren egileak izan ohi dira maiz, baina haien eginkizuna proiektuaren exekuzioan eta kudeaketan nabarmen alda daiteke

eta maiz minimoa izan daiteke; izan ere, horiek tokiko “alderdikideen” gain erortzen dira normalean. Ondorioz, erakunde bitartekariaren jabetze maila ere mugatua izan ohi da askotan.

- Tokiko “alderdikidearen” eta biztanleria onuradunaren edo haren erakunde ordezkatzaileren arteko harremana asko alda daiteke baldintzen arabera, baita haien eginkizuna proiektuaren kudeaketan ere. Hori dela eta, parte hartzen duen biztanleriak proiektuarekiko duen “jabetza” maila ere eskasa izan daiteke.
- Proiektuek ez dute beti lotura izaten tokiko garapen-planekin (daudenean) eta eskumena duten tokiko erakundeei ez zaie nahitaez horien berri ematen; ondorioz, garapen-ekintzen koordinazioa zaildu egiten da.
- Kasu askotan, tokiko erakunde erantzuleari erreferentzia eginez soilik hitz egin daiteke garapen-ekintzen “jabetzari” buruz egokitasunez, nahiz eta horrek ez duen garapenari dagokionez behar adinako inpaktua bermatzen.

Hortaz, udalaren, erakunde kudeatzailearen eta parte hartzen duen biztanleriaren aldetik behar adinako jabetza bermatzen ahaleginduko gara. Horrek informazio xehaketa eskatuko du gutxienez eta dagokionean, proiektuen identifikaziotik parte-hartze handiagoa.

Parte hartzen duten erakundeen erantzukizunaren garrantzia

Kanpoko lankide boluntarioek garapen-ekintzekiko duten jabetza urria dela eta (bereziki udal-emailea eta GKEE edo erakunde kudeatzailea), horien erantzukizuna maiz proiektuaren exekuziora eta diru-laguntzen justifikazioarekin amaitzera mugatzen da. Bestalde, lankidetzaren laguntzarekin martxan jarritako zerbitzuen eta ekimenen funtzionamendu eraginkorra jasoko duen partekatutako erantzukizuna planteatu daiteke. Erantzukizunaren ikusmolde hori zerbaitetan aipatutako zerbitzuen edo ekimenen *ex – post* jarraipen-mekanisमतzat ulertu beharko litzateke, horrek erantzukidetasun aldia luzatzen duela eta baliabide espezifikoak eskatzen dituela kontuan hartuta.

Garapenerako lankidetzaren alorrerako lerro zuzentzaileen zehaztapena

Berrito heltzen zaio lerro zuzentzaile bakoitzari eta lankidetzaren mota edo tresna bakoitzera bereziki nola aplikatzen diren zehazten da.

Elkartasunaren sustapena topaketa moduan eta herritartasun globalaren sustapena

Garapenerako lankidetzaren ekintzek era berean hiriko elkartasunaren sustapenean laguntzea erronka da.

“Topaketaren” ikuspegitik, azpimarratu daiteke proiektuko protagonistekiko zuzeneko harremana ohiko praktika dela herri edo problematika batean zentratutako erakunde txikietan eta kultur instituzioan barneratuta duten hainbat GGKEetan, baita erakundearen edo udaleko langileen artean zuzeneko harremana eskatzen duten proiektuetan ere, baina zailtasuna ekartzen du proiektu kopuru handiagoa kudeatzen duten GGKEen kasuan.

Proiektuek elkartasunezko ondorioak izan ditzatela lortzeko proiektuaren kudeaketa zorrotzari gehitutako esfortzua eskatzen du zalantzarik gabe eta baita baldintza jakinak ere:

- GGKEak edo erakunde erantzuleak tokiko kolektiboa –GGKEari lotutakoa edo besteren bat izan daiteke– problematika, proiektu edo proiektuko kolektibo protagonistarekiko topaketaren inguruan motibatuzko gaitasuna izatea.
- Bestalde, topaketak erabateko zentzua izan dezan, proiektuan parte hartzen duten bertako pertsonen heldu behar zaie eta ez soilik lankide boluntarioei edo misiolariari.
- Harremana eta topaketa sortzeko denbora nahikoa, harreman trinkoa nekez izango dela jakinda.

- Bi tokietako kolektiboei egokitutako informazioaren lanketa.
- Informazio-, sentsibilizazio- eta truke-ekintzetara bideratutako baliabideak.

Zalantzarik gabe, bazterketa-txertaketa ikuspegitik, beharrezkoa litzateke topaketan parte hartzen duten bi alderdietako kolektiboek gai komunaren batean interesa partekatzea edo lotutako alorretan praktikak izatea eta harremana baterako ekintzara zuzenduta egotea. Hala ere, gutxi dira ikuspegi horretan oinarritutako estrategia duten GGKEak, beraz, orokorrean eskatu ezin daitekeen balio gehigarria izango litzateke.

Baldintza horiek guztiek garrantzi bereziko bi ondorio dituzte:

- Alde batetik, udalaren aurrean proiektuaren erantzukizuna duen erakundeak hirian gutxieneko presentzia, jarduera eta egitura izatea eskatzen dute, hortaz, hori diru-laguntzak jasotzeko baldintza izan ohi da.
- Bestetik, lerro hori jarraipenik gabeko harreman puntualekin nekez dela bateragarria adierazten dute, horregatik, ahal den heinean ekintza horiek baztertzeko eta ekintza iraunkorrak bultzatzea aholkatzen dute.

Giza eskubideak babesteko ekintzek premiazko izaera izan ohi dute eta ez du zentzurik jarraitutasun-konpromisoa eskatzeak, baina bai salaketa eskatzeak, sortzen dituzten egoerei buruzko informazioa eta hiriko sektoreak erantzuna emateko esku hartzera bideratutako sentsibilizazioa.

Mota horretako baldintzak ez dira premiazko ekintzetarako finkatzen, nahiz eta tokiko lankidetzaren eragileek alde aurretik harremana izandako herriek laguntzeko esku-hartzei lehentasuna ematen zaien.

Lankidetzaren tokiko giza garapenerako prozesu jarraituetan zentratzea

Printzipio hori praktikan jartzeak dimentsio geografikoa dakar: administrazio-barruti, baldintza geografiko edo esku-hartze sektorearen arabera alda daitekeen tokiko lurralde-eremura mugatzea ekintzak, gogoan izanik eremua sobera mugatua izan daitekeela ondorio askotarako eta tokiko prozesuak kanpo-eragileen (eskualdekoak, nazionalak eta nazioartekoak) mende daudela.

Muga geografiko hori hainbat esku-hartzeren logikarekiko kontraesankorra izan daitekeela onartuta, irizpidea malgutu ahal izango da tokiko esku-hartze testuingurua ez dela egokiena frogatzen denean, betiere, eta ekintzak erakunde erantzulearen eta Gasteizko erakundearen arteko estrategia komunari erantzuten dionean eta hiriko pertsona edo erakundearen esku-hartze handia ekartzen duenean.

Denborazko dimentsioa ere jasotzen du: tokiko prozesuen laguntzan hiru edo lau urteko gutxieneko jarraitutasuna bermatzea beharrezkoa delako. Alderdi horrek zailtasun nabarmena ekartzen du urteko aurrekontuek eta tresnek (deialdiak, hitzarmenak) hainbeste baldintzatutako sistemari eta GGKE gehienek kudeaketa-beharrak direla eta –urtez urte zer proiektu zein erakunderi aurkeztu erabaki behar izaten dute, kudeaketako alderdiekin lotutako baldintzen arabera (kopuruak, epeak, erakundeek urtero markatutako lehentasunak eta abar)–.

Bestalde, tokiko prozesuko eragileak zein diren zehazteko eskatzen du. Eredu idealtzat har daitezke parte-hartzaile hauek dituzten prozesuak: hautetsitako tokiko agintariak (udalen homologoak), esku-hartze sektorean eskumena duten beste erakunde publiko batzuk, elkarte sozialak eta komunitarioak, tokiko GKEak eta, kasuan kasu, enpresa-sektoreak edo sektore ekonomikoak. Hala ere, eredu hori ez da testuinguru guztietan izaten eta maiz gertatzen dira oraindik ere gizarte-eragile gutxi batzuek soilik bultzatutako eta laguntza instituzionalak lortzeko aukera urriak

dituzten garapen-ekimenen (eta ez soilik biziraupenekoak) egoerak. Nolanahi ere, gizarte-ehuna eta tokiko erakundeak kontuan hartzen ez dituzten ekintza isolatuak saihestea da helburua.

Amaitzeko, “tokiko garapen-prozesu” terminoa zehaztea komeni da. Adierazitako moduan, ez da sektorekako mugaketara jo, baina lehentasunezkoztat jotzen dira gaitasunen sorrera eta pertsonen bizi-baldintzen hobekuntza eraginkorra konbinatzen dituzten prozesuak, batik bat, behar bezala kudeatutako zerbitzuak (oinarrizkoak, sozialak eta abar) edo ekimen ekonomikoak funtzionamenduan uzten dituztenak eta baliabide nazionalekin jarraitutasuneko tankera dutenak.

Indarrean dagoen lankidetzako hainbat urtetarako proiektuen deialdiak (2008-2011) ikuspegi horri erantzuten dio, nahiz eta beste baldintza mota batzuk jasotzen dituen; ondoren testuinguru jakinetara egokituko ez direnak edo garapen-ekintzetan GGKE askotako ohiko praktikekin bat etorriko ez direnak. Era berean, udal mailako lankidetzatresnak bat datoz lerro horrekin edo erraz egokitzen dira hartara. Bestalde, lerro zuzentzailea praktikan jartzeak lankidetzarako urteko deialdia funtsean aldatzea eskatzen du.

Gizon-emakumeen berdintasunaren sustapena

Goian adierazitako arrazoiak direla eta, bereizitako estrategiarantz jotzen da: lehenik eta behin, generoari dagokionez gutxieneko eskakizunak finkatuko dira proiektu guztietarako, bigarren, aurrerapen progresiboak eskatuko dira eskakizun moduan eta, azkenik, lehenetsitako proiektuak definituko dira.

Gutxieneko baldintzak:

Tratu berdinen printzipioa gordetzen dela bermatzeko eta gizon-emakumeen arteko desberdintasuneko egoerak murrizteko gutxieneko baldintzei dagokionez eta martxan jarritako garapen-ekintzetako berdintasunaren helburu orokorra sustatzeko, proiektuen aurkezpen-formularioetan genero-inpaktuaren alde aurreko ebaluazio arrunta gehituko da eta gutxienez hauek jasoko ditu:

- sexuaren arabera bereizitako datuak
- proiektuaren alorrean gizonezkoen eta emakumezkoen hasierako egoeraren azterketa
- proiektuak gizon-emakumeen berdintasuneko helburuaren gainean duen inpaktuaren ex-ante balorazioa
- atzemandako eragin negatiboak ebazteko sartutako neurri zuzentzaileak

Aurkezpen-formularioek eta jarraipen-txostenek emaitzei eta generozko inpaktuei buruzko atal espezifikoak izango dute.

Emaitza progresiboak (jarraipen-baldintzak):

Ekintza jarraituetan adierazi den moduan, proiektuaren sektorea edozein dela ere, jarraitzeko baldintzatzat planteatuko da generozko desberdintasunen murrizketari dagokionez eta gizon-emakumeen berdintasunaren sustapenari dagokionez aurrerapen jakinak egitea. Helburua ez da gutxieneko batzuk betetzea, modu mugatuan bada ere berdintasunaren helburu orokorrean aurrera egitera zuzendutako helburuak eta ekintzak sartzen joatea baizik.

Zehatzak izateko asmorik gabe, aurrerapenak hauek izan daitezke:

- proiektuko arduradunen trebakuntza espezifikoak generoaren ikuspegia behar bezala txertatzeko eta horren ondorioz proiektuko estrategiak aldatzeko
- proiektuaren alorrean emakumeen posizioa eta bizi-baldintzak hobetuko dituzten neurri espezifikoak martxan jartzea (hezkuntzarako eta osasun-zerbitzuetarako sarbidea, bereziki

- sexu- eta ugalketa-zerbitzuetarako, diru-sarrereren sorrera eta abar)
- emakumeen eskubideen urraketari erantzuna
- emakumeen partaidetza handiagoa proiektuko edo komunitateetako organo erabakitzaileetan
- emakumeen antolaketa autonomoa
- proiektuen onuradunak direnentsako berdintasun-gaiei buruzko trebakuntza
- emakumeen lan-kargaren murrizketa proiektuarekin lotutako alderdietan eta gizonezkoen erantzukidetasunaren sustapena etxeko lanetan eta zaintzan
- zaintzako lan-kargaren birbanaketan lagunduko duten zerbitzu sozio-komunitarioen sustapena

Helburua ez da tokiko garapen-prozesuek hainbat emaitza aldi berean lor ditzaten eskatzea, markatutako emaitza jakinak betetzen joatea baizik (nahiz eta mugatuak izan).

Lehenetsitako proiektuak:

Lankidetzako tresnetan lehentasunezkoztat joko dira, alde batetik, emakumeak ahalduntzeko ekintza espezifikoei dagozkien eta gizon-emakumeen berdintasunari dagozkien proiektuak:

- emakumeen sexu- eta ugalketa-eskubideak
- emakumeen pobrezia- eta lan-kolokatasunaren aurkako borroka
- emakumeak alfabetatzea eta hezkuntza zabalagora iristea
- emakumeen partaidetza sozio-politikoak
- emakumeen partaidetza erabaki sozial, politiko eta ekonomikoak hartzerakoan
- zainketa-lanaren aitorpena eta gizonezkoen erantzukidetasunaren sustapena etxeko lanetan eta zaintza-lanetan
- mendeko pertsonen zaintza-lanean erantzukidetasun publikoaren helburua jasotzen duten zerbitzu sozio-komunitarioen garapena
- emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean babesak eta borroka (berezi giza eskubideen babesaren deialdian)

Proiektu guztiek, oro har, emaitza jakinak ekarri behar dituztela ondorioztatuta, ahalduntzeko proiektutzat definitutakoak problematika jakinekin lotuta egon beharko dute eta emakumezkoen bizi-baldintzen hobekuntzan eta erabakiak hartzeko, kudeatzeko eta baliabideak kontrolatzeko gaitasunaren erabilera eraginkorrean zuzenean eragingo duten emaitzak proposatu beharko dituzte.

Bestalde, hauek ere lehentasunezkoztat jotzen dira:

- generozko ikuspegia benetan txertatzen duten proiektuak, hau da, berdintasunaren aldeko ekintza espezifikoko aurrera eramatea helburu nagusitzat izan gabe esku-hartze eremuan berdintasunaren helburu orokorrari dagokionez emaitza esanguratsuak lortzea bilatzen duten proiektuak.

Etorकिन kolektiboekin lotutako lankidetzaren sustapena

Lankidetzarako deialdiak zabalik daude etorkinen elkarte eta kolektiboentzat, baita hiriko beste erakundeentzat ere, hirian gutxieneko presentzia, jarduera eta egiturazko baldintzak betetzen dituztenean, betiere.

Ez dira etorkinen kolektiboek espezifikoki zuzendutako deialdiak egiten.

Bereziki interesgarritzat jotzen da GGKE eta etorkinen kolektiboen arteko lankidetzak-lerroa; izan ere, batetik batzuen lankidetzaren kudeaketako esperientzia eta besteen jatorrizko lurraldeetako eta gizarteetako errealitatearen ezagutza batzea ahalbidetzen du, eta bestetik hiriko bizikidetzan laguntzen du. Hala ere, lankidetzak bi alderdien nahiaren mende dagoela badakigu

eta udalak ez duela behartu behar.

Lankidetzaz bultzatu nahi da GGKEei proiektu osagarrien deialdietara kolektibo horietakoren batekin elkarlanean aurkezteko aukera eman.

Aztertu beharreko beste neurria etorkinen kolektiboei edo espezializatu gabeko hiriko erakundeei bereziki zuzendutako lankidetzaz-proiektuen kudeaketari buruzko trebakuntza egitea da.

Udal mailako lankidetzaz-tresnei dagokienez:

- Toki mailako erakundeekin egindako zuzeneko hitzarmenek komunitate etorkinen jatorrizko lurraldeekin lankidetzaz bideratu dezakete; komunitate etorkin horiek lankidetzarako bide egokia dela pentsatzen duen kasuetan. Nolanahi ere, erakunde horiekiko alde aurreko hurbilketa eskatzen dute eta haien garapen-politiken eta gaitasunen balorazio egokia.
- 2010. urtean kide diren erakundeei zuzendutako immigrazioaren eta lankidetzaren arteko loturari buruzko sentsibilizazio- eta hausnarketa-prozesua egiteko proposamena aurkeztuko zaio Euskal Fondoari eta ondoren, Euskadin immigrazio-jatorri handiko herrialderen bat esku-hartze herrialdeen artean gehitzearen komenigarritasunari buruzko eztabaida egin dezan eskatuko zaio.
- Batik bat kontuan hartuko da NBGP-EB Migrazioari eta Garapenari buruzko Baterako Eki-mena, aintzat hartuta Vitoria-Gasteizen etorkinen lagin handiena duten eta programa horretan jasota dauden herrialde bakarrak Maroko eta Ekuador direla.

Bidezko Merkataritzaren eta Kontsumo Arduratsuaren sustapena eta hedapena

Garapenerako lankidetzaren alorrean, bidezko merkataritzaren eta kontsumo arduratsuaren sustapenak lanerako bi bide zabaltzen ditu:

- Alde batetik, garapen-bidean dauden herrialdeetako bidezko merkataritzako ekimenekin zuzenean lotutako proiektuei lehentasuna ematea ekartzen du, bai produkzioaren alorrean, bai merkaturatzearen alorrean. Horrek ez dio GGKE bidez egindako lankidetzaz-tresnen sektore motako lehenespina izateari uzten, nahiz eta tokiko erakunde publikoek bultzatutako toki mailako garapen-ekimenak eta bidezko merkataritzari lotutakoak imajinatu daitezkeen. Nolanahi ere, badakigu bidezko merkataritzaren produkzio- eta merkaturatze-ekimenen aldeko laguntzak toki mailako eremu geografikoa gainditzeko duela.
- Bestalde, bidezko merkataritzaren eta kontsumo arduratsuaren sustapena garapen-bidean dauden herrialdeetako lankidetzako eragileen artean. Izan ere, bide hori askotariko eragileen borondatearen mende egongo litzateke. Udalak alderdi hori udalerrri mailako lankidetzaz-harremanetako testuinguruan zuzeneko elkarrikeria duen erakundeekiko elkarrikeria-gai moduan sartzeko konpromisoa hartzen du soilik.

Lehentasun geografikoei buruz

Planak uko egiten dio GGKE eta bestelako erakunde sozialei espezifikoki zuzendutako tresnetarako lehentasun geografikoak definitzeko, horietako asko neurri txikikoak direla, ibilbideak finkatutako lankidetzaz-harremanak dituztela eta kanpo-lehentasunetara ezin egokitu daitezkeela kontuan hartuta.

Lankidetzaz barreiatuak sor ditzakeen eragozpenak konpentsatu nahi dira, elkartzun-harremanen sorrerari dagokionez izan dezakeen eraginarekin; horrek azken helburu horrekin zorrotzagoak izatea ekartzen du.

Hala eta guztiz ere, zenbait GGKEk lankidetzaren herrialderekin garatu erabakitzeak aukera eta tokiko kolektiboren bat tartean sartzeko aukera duten heinean eta Afrikako lankidetzaren proposamenen eskasia tradizionala dela eta, Vitoria-Gasteizko Udalak kontinente horretako lankidetzaren sustatzea hartu du helburu. Kontuan izanda eremu horretako herrialde gehienetako egoeraren espezifikotasunaren ondorioz proiektuen balioespenean kontuan hartu ohi diren hainbat alderdi betetzeko zailtasuna egongo dela, nahi hori garapenerako lankidetzaren deialdien baremazioetan islatuta geratuko da, Afrikako kontinentean garatu nahi diren proiektuen kontentsazio moduan.

Nolanahi ere, hiriko etorkinen kolektiboekin lotutako lankidetzaren sustatzen duen lerro zuzentzaileak lehentasunezkoak bihurtzen ditu kolektibo nagusien jatorrizko eremuak. Hala eta guztiz ere, esan beharra dago orain arteko informazioak, Kolonbiako kasua salbu, ez duela uzten eremu geografiko horiek zein diren zehazten. Garapenean Laguntzeko Zerbitzua eremu horiek identifikatzen ahaleginduko da, lankidetzaren ekimenak dituzten kolektiboekin eta etorkinekin lotura gehien duten udal-zerbitzuekin elkarlanean.

Udalerrri mailako lankidetzaren eremuan, udalaren ibilbidea zuzenean edo Euskal Fondoarekin elkarlanean funtsean Erdialdeko Amerikan zentratu da orain arte. Eraginkortasun-arrazoiak direla eta, esperientzia hori kapitalizatzea eta Erdialdeko Amerikako eskualdean esku hartzen jarraitzea gomendatzen da. Hala ere, etorkinen kolektiboen jatorrizko lekuetako toki mailako erakundeekiko harremana ere lehentasunezko zatik hartu behar da.

Sektore mailako lehentasunei buruz

Tresnen eta eragileen arabera aldatzen diren sektore mailako lehentasunak definitzea proposatzen da:

GGKE bidezko lankidetzaren

GGKEei zuzendutako finantziario-lerro eta tresnen kasuan, horietako asko ez daudela sektore jakinetan espezializatuta jakinik eta sektore mailako eskakizunetara egokitzeko aukerarik ere ez luketela izango jakinik, planak uko egiten dio urteko lankidetzaren deialdirako sektore mailako lehentasunak definitzeari. Ondorioz, GGKEak eroso sentitzen diren eta esperientzia gehien duten sektoreetako proiektuen inguruko lankidetzaren harremanak indartzera jotzen da, horiek giza garapeneraren kontzeptu zabalarekin lotura gordetzen duten heinean, betiere, maila guztietan borrokatzeko eta pobrezia ezabatzeke joera duten ekintzei lehentasuna emanaz beti.

Gizon-emakumeen berdintasuna sustatzeko lerro zuzentzaileari jarraiki, lehentasunezko zatik jotzen dira desberdintasunezko egoera nabarmenak zuzentzea eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bermatzea bilatzen duten proiektuak.

Era berean, jatorrian bidezko merkataritzarekin lotutako produkzio- eta merkaturatze-jarduerei ere lehentasuna ematen zaie.

Udalak proiektuak balioesteko eta haiei aholku teknikoa emateko giza baliabideak dituen sektoreetan lehentasunak definitzeak kalitatearen eta eraginkortasunaren ikuspegitik erabateko zentzua duela kontuan hartuta, aztertu egingo da lankidetzarako hainbat urtetarako proiektuen hurrengo deialdiak ea esku-hartze sektoreak lehenetsi edo mugatu behar dituen.

Udal mailako lankidetza

Udal mailako lankidetza (zuzeneko hitzarmenak, Euskal Fondona) udalak egiten jakiteko eta teknikoki inplikatzeko gaitasuna duen sektoreetara mugatuko da.

Udaleko hainbat sail, enpresa eta erakunde autonomok hartutako konpromisoen arabera, lankidetza teknikoaren ondorioetarako lehenetsitako sektoreak hauek dira:

- ura eta saneamendua
- Ingurumena
- gizarte-zerbitzuak
- hiri-birgaitzea
- gizon eta emakumeen arteko tokiko berdintasun-politikak

Askotariko tresnen deskribapen eskematikoa

Lankidetza kudeatzeko askotariko tresnen deskribapenak oinarritzko ezaugarriak jasotzen ditu eta bereziki lerro zuzentzaileak garatzeko modua.

GGKEei eta beste erakunde sozial batzuei zuzendutako tresnak

Lankidetzarako urteko deialdia

Lankidetzarako urteko deialdi berriak, 2010etik aurrera abian jarriko denak, helburu hauek ditu: lankidetza-ekintzen jarraitutasuna bermatzea, garapenari eta berdintasunari dagokionez aurrerapen zehatzak ematea eta kolektibo gasteiztarren eta garapen-bidean dauden herrialdeetako proiektuetako kolektibo protagonisten arteko harremanak eta topaketa erraztea, GGKE edo Gasteizko erakundearen eta hegoaldeko GKEaren artean epe ertainerako elkartasunaren eta lankidetzaren logikarekin, definitutako eremuko garapeneko helburu jakinen inguruan.

Ekintzen jarraitutasuna ahalbidetzen duen "kateatutako urteko proiektuen" deialdia da. Hori dela eta, "martxan jartzeko" atala artikulatzen du. Eremu batean hiru edo lau urtetan esku hartze-ko konpromisoa ekartzen du, esku-hartzeari ekitea eta hurrengo urteetarako identifikazio-lanak jasotzea ahalbidetzen du. Bigarren urtetik aurrera, alde zuzenetik hasitako ekintzetarako erreserbatutako "jarraitutasun" atala jasotzen du.

Deialdiaren xedea hainbat urtetarako proiektuen egungo deialdia baino tresna malguagoa izatea da; izan ere, ez du esku-hartzea alde zuzenetik zehaztasunez planifikatuta egotea eskatzen, baina hiru alorretako gutxienezko emaitzen betekizunean islatzen den eskakizun maila gordetzen du: aurrerapenak generoari dagokionez, planekiko artikulazio mailak eta Gasteizko kolektiboaren eta proiektuko protagonisten artean topaketa, truke eta garapeneko tokiko beste ekimen batzuk.

Deialdiko ezaugarri nagusiak eta lerro zuzentzaileak bertan moldatzeko modua koadro honetan jasota daude:

“KATEATUTAKO PROIEKTUEN” URTEKO DEIALDIA	
Helburua	Lurraldeko giza garapena 3 edo 4 urtetan
Ezaugarriak	Urteko proiektuak garapen-ekintzaz gain 2., 3. eta 4. urteetarako identifikazio- eta formulazio-lana jaso ditzake
Exekuzioaren iraupena	12 hilabete
Sartzeko baldintzak	Presentzia eta jarduera hirian. Eskualde berean 3 edo 4 urtetan esku hartzeko konpromisoa
Jarraitzeko baldintzak (urte batetik bestera)	Generozko aurrerapenak Agintariekiko koordinazio gaietan aurrerapenak edo tokiko garapen-planak Sentsibilizazioaren eta trukearen emaitzak
Generoa	Proiektu guztietarako definitutako gutxieneko baldintzak Lehenetsitako berdintasunaren sustapenerako proiektuak Definitutako generozko gutxieneko emaitzak
Elkartasuna topaketa gisa	Hiriko kolektibo bati zuzendutako sentsibilizazio espezifikoa. Hartu-emanan Gasteizen 2. eta 4. urtearen artean
Immigrazioarekiko harremana	Immigranteen kolektiboen ekimenetara irekita GGKE eta immigranteen kolektiboen lankidetzara irekita, ezaugarri horietako proiektu osagarria aurkezteko aukera dela eta
Kalitatea eta eraginkortasuna	Proposamenak berrikusi aurreko txanda Deialdia eta tresnak aurkezteko saioa (aurkezpen-formularioak, emaitza motak) Espezializatutako udal-zerbitzuek proiektu teknikoak berrikustea, dagokionean

Deialdiko emaitzen arabera, proiektuen ekipamenduko ekintza oso puntualak bultzatzea ahalbidetuko duen atal txikia txertatzeko aukera kontuan hartuko da. GGKEak edo tokiko kolektiboak oso zuzeneko harremana izango du proiektu horiekin eta proiektuaren formulazioari dagokionez gutxieneko baldintza batzuk egongo dira.

Lankidetzako hainbat urtetarako proiektuen deialdia

Hainbat urtetarako proiektuen egungo deialdia 2008. urtetik martxan dago eta 2010 eta 2011. urtetarako onartutako konpromiso-kredituak ditu.

HAINBAT URTETARAKO PROIEKTUEN DEIALDIA		
Denborazkotasuna	Oraingo proiektuak 2008-2011	
Exekuzioan dauden proiektuak	9 proiektu	
Konpromiso-kredituak	2010	2011
	935.247,87 €	881.215,97 €
Tokiko garapena	Tokiko erakundeen nolabaiteko inplikazio maila duten tokiko proiektuak	
Generoa	Proiektu guztietarako gutxieneko baldintzak	
	"Berdintasunaren sustapena" kategoria bereziko 2 proiektu	
Elkartasunaren sustapena	Kolektibo espezifikoei zuzendutako sentsibilizazio-ekintzak aurrez ikusita	
Udalaren inplikazioa	Jarraipeneko zerbitzu teknikoen inplikazioa (bereziki eraikuntzari eta urari dagokionez)	

2010. urtean hainbat urtetarako deialdiaren balioespina egingo da, alderdi hauek bereziki kontuan hartuta:

- proiektuen aurrerapenak
- erakundeekiko harremana eta tokiko garapen-planak
- generozko aurrerapenak
- sortutako sentsibilizazio- eta truke-ekintzak
- egindako hainbat urtetarako proiektuen ebaluazioak
- deialdiko prozedurak.

Balorazio horren arabera erabakiko da egokia den:

- hainbat urtetarako deialdia zabaltzea antzeko baldintzetan 2011. urtean,
- deialdia sakon aldatzea, irizpide hauei jarraiki:
 - egiaztatutako esperientzietan oinarritutako proiektuak (eraginkortasuna frogatu duten kudeaketako teknologiak, metodologiak edo sistemak)
 - udalak berrikusteko eta aholkularitza teknikoa emateko gaitasuna duen sektoreetara mugatzea deialdia, bideragarritasun teknikoko berme gehiago izate aldera
 - inplikazio handiagoa tokiko erakundeetan eta herrialdeetako tokiko legedietara egokitzen hobe (herrialdeka mailakatutako deialdiak egitea ekar dezake).

Giza eskubideak babesteko deialdia

Giza eskubideak babesteko deialdia egungoen antzeko baldintzetan mantentzen da. Udal-organoei zuzendutako informazioa indartu egingo da.

GIZA ESKUBIDEAK BABESTEKO DEIALDIA	
Helburua	Giza eskubideak babesteko ekintzen sustapena lau kasutan: gatazka-egoerak, emakumeen eskubideen urraketa, haurren babesa eta kartzelak eta garapen-bidean dauden herrialdeetako iragaitzazko etorkinak
Denborazkotasuna	Urteroko aldizkakotasuna Exekuzio-epea: 12 hilabete
Elkartasunaren sustapena	Hirian informatzeko eta sentsibilizatzeko ekintzak egitea beharrezkoa da
Tokiko garapena	Ez dagokio
Generoa	Aurrez ikusitako ekintza motetako bat: "emakumeen eskubideen urraketaen aurkako borrokan jarduteko programak".
Immigrazioarekiko harremana	Immigraenteen erakunde edo kolektiboekin haien jatorrizko leku edo herrialdeei eragiten dieten egoeretan laguntzeko aurrez ikusitako lankidetzak
Kalitatea eta eraginkortasuna	Informazioan eta sentsibilizazioan zentratua
Udalaren inplikazioa	Udalerriko alderdi politikoentzako eta sindikorako informazio espezifikoa

Proiektu-lehiaketak

Proiektu-lehiaketa deitzen diogu jarduera bakarria hautatzeko proiektuen aukeraketa-sistemari. Proposamena onartzeko aukera erabilera-deialdiena baino txikiagoa dela kontuan hartuta, aipatutako prozedura mugatua izango da.

Oso ezaugarri zehatzak dituen ekintza bakarria hautatzeko prozedura egokia hori dela pentsatzen da. Horren adibide izan daiteke Gazteria Zerbitzuko Azoka Txiki programaren xede den haurren proiektuaren kasua.

Hitzarmena AEDSko Lagunen Elkartarekin

Hitzarmena Vitoria-Gasteizko Udalean Saharako herriarekiko elkartasunaren inguruan dagoen adostasun politikoaren adierazpena da eta egungo baldintzetan mantenduko da Tindufeko errefuxiatuen kanpamenduetan lankidetzak-ekintzak eta laguntza humanitarioko ekintzak aurrera eramateko eta Vitoria-Gasteizen informazio- eta sentsibilizazio-ekintzak egiteko.

Urteko programetan sartuko dira jarduera hauek:

- Saharako herriarentzako osasuna (otorrinolaringologiako eta oftalmologiako misio kirurgikoak)
- Erizaintzako eskolari laguntza ematea
- Ospitale eta osasun-zentroetako mantentze-lanetarako laguntza ematea

- Saharako Emakumeen Batasun Nazionalari (U.N.M.S.) laguntza ematea
- Elikadurazko laguntza ematea
- Garapenerako informazioa, sentsibilizazioa eta hezkuntza.

Erizaintzako eskolari laguntzeko proiektuek eta ospitaleetako mantentze-lanetako proiektuek 2012. urtea arteko eta 2011. urtea arteko planifikazioak dituzte, hurrenez hurren.

2010. urtean UNMS elkarteari laguntzeko programaren 2013. urterainoko planifikazioa izan beharko da.

Informaziorako eta sentsibilizaziorako programak Marokok okupatutako lurraldeetako egoera hartuko du kontuan, batik bat Giza Eskubideei dagokienez.

Errefuxiatutako herritarren itzulera ekarriko luketen bake-prozesuek aurrera egiten duten kasuetan, ekintza horiei lehentasuna emango zaie.

Larrialdietarako Arabako Funtsa

LARRIALDIETARAKO ARABAKO FUNTSA	
Ezaugarriak	Garapen-bidean dauden herrialdeetan premia handiko ekintzetan laguntza ekonomikoa emateko Arabako Foru Aldundiaren eta Caja Vital Kutxaren arteko baterako tresna. Urtean premiazko 4 edo 5 egoerari erantzutea ahalbidetzen du, erakundeek aurreratutako eta arin ordaindutako funtsei esker.
Eragile nagusiak	GGKE
Denborazkotasuna	Mekanismo iraunkorra. Ekintzak exekutatzeko epea: 6 hilabete
Sartzeko baldintzak	Funtsaren erakunde laguntzaile moduan alta emandako GGKEak
Elkartasuna topaketa gisa	Arabako erakundeek lankidetzaren harremanak izan dituzten herrialdeekin lotutako esku-hartzei lehentasuna Sentsibilizazioari dagokionez betebeharririk ez
Generoa	Emakumeak nabarmen ez diskriminatuzko betebeharra
Udalaren inplikazioa	Ez

Udaleko lankidetzaren tresnak

Hitzarmena Euskal Fondoarekin

Euskal Fonda erakundearen lan-ildoak organo zuzentzaileek definitzen dituzte, hortaz ez daude Vitoria-Gasteizko Udalaren nahiaren mende soilik. Hori dela eta, 1998. urtean Euskal Fonda eta Vitoria-Gasteizko Udalaren artean sinatutako hitzarmen-markoaren funtzionamendua

deskribatzen da, Euskal Fondoaren egungo jarduera-irizpideetatik abiatuta, eta eboluzio-propotasamenak apuntatzen dira:

HITZARMENA EUSKAL FONDOAREKIN	
Ezaugarriak	Urteko programak onartzea aurrez ikusten duen hitzarmen-markoa
Esku hartzeko herrialdeak	Hitzarmenaren testuinguruan Vitoria-Gasteizko Udalak herrialde hauetan soilik garatuko du lankidetzak: Kuba, El Salvador, Guatemala eta Nikaragua. Alde batera utziko du AEDSko esku-hartzea.
Eragile nagusiak	Garapen-bidean dauden herrialdeetako tokiko erakundeak
Denborazkotasuna	Urteko programak, baina laguntza jarraitua hainbat urtetarako proiektuetarako
Elkartasuna topaketa gisa	Udaleko teknikarien partaidetza proiektu gehienetan Garapen-bidean dauden herrialdeetako kideekin truke gehiago garatzen ahaleginduko gara
Generoa	Ekintza guztietarako gutxieneko baldintza espezifikoak. Berdintasunari buruzko toki mailako politikekin lotutako proiektuak edo garapenean generoaren ikuspegia argi eta garbi txertatzen dutenak lehenetsiko dira. Euskal Fondoko organo zuzentzaileei lankidetzak-ekintzetan GII (Generoa Indartzeko Indizea) indizean sakontzeko proposamena egingo zaie
Immigrazioarekiko harremana	Momentuz ez dagokio. Kide diren erakundeei zuzendutako immigrazioaren eta lankidetzaren arteko loturari buruzko sentsibilizazio- eta hausnarketa-prozesua egiteko proposamena aurkeztuko zaio Euskal Fondoari eta ondoren, Euskadin immigrazio-jatorri handiko herrialderen bat esku-hartze herrialdeen artean gehitzearen komenigarritasunari buruzko eztabaida egin dezan eskatuko zaio.

Garapen-bidean dauden tokiko erakundeekin zuzeneko lankidetzako hitzarmenak

Erakundeekiko zuzeneko lankidetzako hitzarmenek bildu beharreko ezaugarrien azaleko deskribapena egiten da.

GARAPEN-BIDEAN DAUDEN HERRIALDEETAKO TOKIKO ERAKUNDEEKIN HITZARMENA	
Ezaugarriak	Erakundeek tokiko giza garapenean eginkizun nagusia hartzen duten testuinguruetan tokiko prozesu jarraituen laguntzako lerro zuzentzailea praktikan jartzeko tresna bereziki egokiak dira.
Baldintzak	Garapenean Laguntzeko Kontseiluaren iritzia biltzea barne hartzen duten 2001. urtean onartutako "lankidetzako hitzarmenak onartzeko oinarrietan" zehaztutako irizpideak betetzea.
Udalaren inplikazioa	Ezingo dira ekarpen ekonomikora mugatu; nahitaez jaso beharko dituzte lankidetzaren tekniko edo trukeko ekintzak.
Denborazkotasuna	Hiru edo lau urteko indarraldia izango dute
Generoa	Espezifikatutako gutxieneko baldintzak betetzea Generoari dagokionez, urteko emaitza jakinak eskatzea. Berdintasunari buruzko tokiko politikei (espezifikoak edo zeharkakoak) dagozkien programei lehentasuna ematea
Elkartasuna topaketa gisa	Partaidetza eta trukeak udaleko langileekin
Immigrazioarekiko harremana	Komunitate etorkinen jatorrizko lurraldeekin lankidetzaren bideratu dezakete; komunitate etorkin horiek hori lankidetzarako bide egokia dela pentsatzen duen kasuetan.
Kalitatea eta eraginkortasuna	Udalak esperientzia eta egiten jakitea duen sektoreetako esku-hartzea. Dagokion zerbitzu teknikoaren lankidetzaren

2009-2011 epealdirako Ibagué herriko alkatetzarekin dagoen egungo hitzarmena Vitoria-Gasteizko Ibagueko komunitate oparoaren ekimenetik sortu da. Horren jarraipena urteko programen emaitzen arabera erabaki beharko da.

Udal-lankidetzako programak edo lankidetzaren deszentralizatutako programak

Udalak jaso ditzakeen esku-hartzeetarako proposamen jakinen arabera, udal-zerbitzuen parte hartzeko gaitasunaren arabera eta helmugako herrialdeekiko interesaren arabera, goi mailako erakundeekin lankidetzaren deszentralizatutako programen testuinguruan esku hartzeko aukera hartuko da aintzat. Udalak aipatutako programetan egingo duen lankidetzaren ez da ekonomikoa soilik izango, tekniko eta trukeko ere izango da.

Eguneko programen artean hauei arreta berezia eskainiko zaie: garapenerako Nazio Batuetako programarekin lotutako PDHL⁹ eta ART¹⁰ programak, AECIDen Municipia programa eta NBGP-EB Migrazioari eta Garapenera buruzko Baterako Ekimena.

⁹ Tokiko giza garapenerako programa

¹⁰ Lurralde-sarearen artikulazioa

Programa mota horietan udalaren partaidetza zuzenekoa edo Euskal Fondoaren bidezkoa izango da eta lankidetzako hitzarmenak onartzeko oinarrietan adierazitako irizpideak ere bete beharko ditu.

Jesuiten misioen tokiko garapenerako errehabilitazioko eta balioan jartzeko Uruguaiako NBGP-ART programarekin egun dagoen hitzarmenak 2009-2010 aldia jasotzen du.

Herrialde jakineko udaleko edo deszentralizazio-politiketako laguntza-programetako partaidetzak baldintza bikoitza izango du, batetik, herrialdeko lankidetzako esperientzia nahikoa izatea edo hiriko etorkin kolektibo ugariaren jatorrizko herrialdea izatea eta, bestetik, herrialdeko marko politiko instituzionalari dagokionez emaitza jakinak eta esanguratsuak lortzeko nahikoa berme izatea.

Beste mota bateko hitzarmenak eta eragileen artikulazioak

“GGKE lankidetzaren” eta “udal mailako lankidetzaren” arteko bereizketatik haratago, eragile sozialen eta instituzionalen artean beste mota bateko artikulazioak imajinatu behar dira, bai gure eremuan, bai garapen-bidean dauden herrialdeetan.

Udalaren, Gizakien Lurra-Tierra de Hombres Euskadi elkartearen, Tierra de Hombres Marruecos elkartearen eta Agadirreko bi erakunderen (Oum El Banine eta Ard Al Aftal) artean sinatutako Agadir Hitzarmenak (indarrean 2007-2010 epealdian) Agadirreko zerbitzu sozial jakinei laguntza emateaz gain, udaleko gizarte-zerbitzuetako langileen trukea eta trebakuntza eta zerbitzu sozialak sortzeko Agadirreko Udalaren interesa sortzea ahalbidetu du eta horrek eragile publiko eta sozialen arteko lankidetzarako interesa erakusten du.

Plan Zuzentzailearen indarraldian horrelako artikulazioak beharrezkoak izango diren ala ez aurretik epaitu gabe, garapen-bidean dauden herrialdeetako GGKE, erakunde eta GKEek parte hartu ahal izateko hitzarmenatarako bidea zabalik utzi nahi da; izan ere, bereziki egokiak izan daitezke izaera berritzaileko esku-hartzeetarako.

Kalitatea eta eraginkortasuna hobetzeko neurriak

Atal honetan kalitatea eta eraginkortasuna hobetzeko lerro zuzentzailearekin zuzenean lotutako alderdiak garatzen dira eta horiek hein handian udalaren inplikazioarekin lotuta geratzen dira.

“Oinarri orokorretako eta diru-laguntzetarako deialdi publikoetako irizpideen” berrikusketa

2009an Euskadiko GGKE koordinatzaileak “Oinarri orokorretako eta diru-laguntzetarako deialdi publikoetako irizpideak” izeneko dokumentua helarazi zien udalei eta erakunde kooperatzaileei. Euskal Fondoaren testuinguruan proposamenak aztertzeari ekin zaio eta udalak lan horretan laguntzen jarraitzeko konpromisoa hartu du; hori horrela, 2010ean amaituko du eta bertatik eratorritako gomendioak kontuan hartuko ditu.

Lankidetzako hitzarmenak onartzeko oinarrien berrikusketa (2001)

2011. urtean lankidetzako hitzarmenak onartzeko oinarriak berrikusiko dira, Plan Zuzentzaileara egokitze xedearekin. Berrikusketa hori Garapenean Laguntzeko Kontseiluari kontsultatuko zaio.

Prestakuntza-jarduerak

Alor horretan atzemandako beharrak hauek dira bereziki:

- proiektuak eta programak kudeatzeko tresnei buruzko prestakuntza
- sektore espezifikoekin lan egiteko oinarrizko prestakuntza teknikoak (urari, asentatzei eta abarri buruzko proiektuak)
- herrialdeen ezagutzarekin eta esku-hartzeen testuinguruarekin lotutako prestakuntza

Udala lankidetzaren eremuan elkarrengaitan duten erakundearen artean bat gehiago da, bereziki GGKEek garatzen duten lankidetzan. Hori dela eta, nekez eragin dezake modu erabakigarrian prestakuntza isolatuaren bidez eragile horien lankidetzaren kalitate eta eraginkortasunaren hobekuntzan.

Irizpide orokor moduan, Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak prestakuntza-jarduerak espezifikoak antolatuko ditu lankidetzako tresnetarako eta eskusiboki tokiko eragileei (Vitoria-Gasteizkoak) zuzendutakoak eta interes komuneko prestakuntza-jarduerak EAEko beste erakundeekin (Euskal Fondoko udalak, Arabako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Unibertsitatea...) koordinatzen ahaleginduko da.

Bestalde, lankidetzako proiektuetan parte hartzen duten udaleko langile teknikoek tokiko testuinguruan modu egoki eta eraginkorrean esku har dezaten beharrezko gutxienezko prestakuntza bermatu beharko du udalak.

Prestakuntzako baliabideak eskuragarri dauden heinean eta kostuak gehiegizkoak ez diren heinean, 2011. urtean prestakuntzako truke esperientzia piloturen bat aurrera eramaten ahaleginduko gara eremu geografiko jakinean eta proiektuetako askotariko alderdikideen interes komuneko sektorean. Prestakuntza hori garapen-bidean dauden herrialdeetako baliabideekin soilik edo desplazatutako adituen lankidetzarekin egin ahal izango da.

Proiektuen identifikaziorako baliabideak

Oro har, lankidetzako tresnek proiektuen identifikaziorako eta planifikaziorako denbora eta baliabideak aurrez ikusi beharko dituzte. Irizpide hori aplikagarria da GGKEek eta bestelako erakunde sozialek gauzatutako lankidetzarako zein udal izaerako lankidetzarako.

Espezializatutako zerbitzuek egindako proiektuen berrikusketa teknikoak

Ahal den guztietan, proiektuak edo proposamen teknikoak zerbitzu espezializatuera igorriko dira.

Udaleko tresnen kasuan, dagokion udaleko zerbitzu teknikoak izango ditugu eskura. Beste erakunde batzuekin koordinatutako programen kasuan, hainbat erakundetako baliabide teknikoekin lankidetzara koordinatuko da.

Emaitzen definizioa eta adierazleak

Kudeaketako eta planifikazioko metodologiak edozein izanda ere, berebiziko garrantzia du lortu nahi den emaitza mota definitzeak. Ikuspuntu horretatik, Plan Zuzentzaileak proiektu eta programetako onuradunen bizi-kalitatea hobetzeko eta tokiko gaitasunak areagotzeko emaitzak

konbinatzearen aldeko apustua egiten du. Honako hauek argi eta garbi bereiziko dituen emaitzak definitzeko sistema sartuko dugu:

- herritarren bizi-baldintzak hobetzeko emaitza praktikoak
- tokiko gaitasunak (pertsonalak, sozialak, instituzionalak) indartzeko emaitzak
- gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko emaitzak
- elkartasunaren sustapenarekin lotutako emaitzak

Adierazleen erabilerak horien formulazio egokiaz gain, hasierako datuak edukitzea (oinarrizko erroa) eta bilakaeraz jabetzea ahalbideetako duen informazioa biltzeko sistema eskatzen du eta horrek, aldi berean, baliabide espezifikoak aurrez ikustea. Hori dela eta, adierazleen bilakae-ra neurtu edo atzeman daitekeenean soilik hartuko dira kontuan eta adierazle arrunten kopuru mugatuaren erabilera bultzatuko da. Dagokionean erabilitako adierazleak Milurteko Helburuei dagozkienekin lotzen ahaleginduko gara.

Proiektuen jarraipen teknikoak

Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak egindako jarraipen orokorrekiko osagarri modura, proiektuen jarraipenean eskumena duten udal-zerbitzu teknikoak inplikatu ahal izango dira.

Inbertsio handia edo konplexutasun tekniko altua eskatzen duten azpiegituren kasuan, lurzoruaren jarraipen teknikoak egingo da; lekualdaturako udal-teknikarien bidez edo helmugako herrialdeko profesionalak edo enpresak kontratatuta.

Abian jarritako zerbitzuen jarraipen teknikoak eta ex-post laguntza

Erantzukidetasun-printzipioaren arabera, zenbait kasutan, proiektuaren exekuzio zorrotzaren ondorengo jarraipena egitea aholkatzen da, Vitoria-Gasteizko Udalaren laguntza ekonomikoarekin sortutako zerbitzuen kudeaketaren funtzionamendua eta kalitatea bermatzen laguntze aldera.

Ex-post jarraipen-modalitateak hauetan oinarritu daitezke:

- tokiko erakunde espezializatuen kontratazioa, jarraipeneko informazioa jasotzeko bereziki
- udal-zerbitzuek egindako jarraipeneko informazioaren berrikusketa
- espezializatutako langile teknikoaren aldizkako joan-etorriak

Neurri hori ezin orokortu daiteke; hauen mende baitago bereziki.

- zerbitzua kudeatzen duen tokiko erakundearen nahia
- kudeaketaren konplexutasuna eta laguntza teknikoaren aukera
- proiektuan egindako inbertsioaren garrantzia
- laguntza tekniko adituaren aukera
- jarraipenak dakartzan kostuak

GGKE eta bestelako proiektuetako (batik bat 2007ko hainbat urtetarako proiektuen deialdikoak) erakunde arduradunekin batera, *ex-post* jarraipen mota hori beste proiektu batzuekin garatzearen komenigarritasuna eta baliabideen eskuragarritasuna aztertuko du udalak.

Diru-laguntzen justifikazio ekonomikoko sistemaren berrikusketa

2010. urterako berrikusketa programatu da udalaren diru-laguntzetako justifikazio ekonomikoaren sistemako esku-hartze orokorrekiko batera, Diru-laguntzen Lege Orokorra, Diru-laguntzen Udal-ordenantza eta AECIDeko "garapenerako gobernuz kanpoko erakundeei diruz

lagundutako garapenerako proiektu eta lankidetzaz hitzarmenen jarraipen- eta justifikazio-arauek” (martxoaren 24ko Ebazpena, 2009/04/16ko 93. zenbakiko BOE) kontuan hartuta.

Proiektuen ebaluazioa

Urtean proiektuen kanpo-ebaluazioa kontratatuko da. Egindako inbertsioaren zenbatekoa, proiektuko sektoreak udalaren lankidetzan duen garrantzia eta esperientzia errepikatzeke auekarak konbinatuko dituzte proiektuko hautaketa-irizpideek.

Lehentasunez, inpartuko *ex-post* ebaluazioak egingo dira, baina uneko ebaluazioak egin ahal izango dira proiektuaren garapenak berrikusketa edo berrorientazioa eskatzen badu.

Hainbat urtetarako proiektuen kasuan, proiektu guztietan sistematikoki tarteko ebaluazioa egi-tearen komenigarritasuna aztertuko da eta ekipo ebaluatzailearen hautaketa partekatu beharko da.

Egindako ebaluazioek lan-saioak edo mintegiak ekarriko dituzte, emaitzak eta irakaspenak sozializatzeko helburuarekin.

LAUGARREN ATALA

HIRIAN JARDUTEA...

**Garapenerako hezkuntza
eta sentsibilizazio alorreko
testuinguru operatiboa**



LAUGARREN ATALA

HIRIAN JARDUTEA...

Garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazio alorreko testuinguru operatiboa

Garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazio alorrean, Plan Zuzentzaileko testuinguru operatiboak alorrari eman nahi zaion ikuspegia eskatzen du eta baita helburu espezifikoak ere. Eskuhartzen duten eragileak zein diren definitzen da eta aurrez ikusitako tresnak zerrendatzen dira. Ondoren, lerro zuzentzaileek garapenerako hezkuntzan eta sentsibilizazioan dituzten inplikazioak zehazten dira. Azkenik, garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioko tresnen deskribapen eskematiko eta itxi gabekoa egiten da.

Garapenerako hezkuntzaren eta sentsibilizazioaren ikuspegia

Vitoria-Gasteizko Udalak garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioa hiriko elkartasunaren sustapen modura ulertzen du, garapen-bidean dauden herrialdeetako errealitateak ezagutuz eta munduko pobrezari eta desberdintasunari buruz kontzientziatuz.

Hori dela eta, jardueren hasieratik jotzen du garapenerako lankidetzako helburu nagusitzat elkartasunezko kulturaren sustapena, hiriko GGKEei aldaketaren eragile izan daitezen bultzatuz, ez soilik hegoaldean, baita Vitoria-Gasteizen ere.

Eremu horretatik sustatu nahi den elkartasun mota da Luis Alfonso Arangurenek proposatzen duena: elkartasuna “topaketa” gisa, hau da, sufrimenduaren eta bidegabekeriaren munduarekin topatzean axolagabe ez geratzea, errealitatea ahalik eta objektiboen aztertzea eta elkartasuna gure bizitzetako oinarritzko zutabetzat hartuta bizitzea. Hortaz, konpromisoa hartzean datza eta hura jarraitua izatean.

Era berean, herritartasun orokorrerako hezkuntza sustatu nahi da, elkartasuna globalizatuz, mundu bakarrekoa izatearen sentimendua indartuz.

Horretarako, alor horretatik errealitatea ulertzeko gakoak eskaintzen dira eta gure bizimodua zalantzan jarriko duen eta jarrera-aldaketak ekarriko dituen kontzientzia kritikoa sortu nahi da herritarrengan. Azken batean, arduragabe geratuko ez diren eta haserrea sentituko duten pertsona aktibo eta arduratsuak osatzen lagunduko duten gakoak eta hainbat gizakik bizi duten bidegabekeriak eta desberdintasuneko egoera onartezinaren aurrean mugituko diren pertsonak.

Zehaztapen kontzeptualak

Bi kontzeptu hauek nahastu egin ohi diren arren eta bereizi gabe erabili ohi diren arren, alde nabarmena dago bien esanahiaren artean eta aurrera jarraitu aurretik argitzea komeni da:

- **Sentsibilizazioa (S):** Mundu globalizatuko desberdintasunei eta bidegabekeriei buruzko informazioa eta mobilizazioa, hegoaldeko herrialdeetako egoerari buruzko enfasi bereziarekin, baina gure inguruko inpaktu errealak eta potentzialak alde batera utzi gabe. Giza Eskubideetako lankidetzak edo babes-proiektuei buruzko informazioa. Zehaztu gabeko taldeei, herritarrei orokorrean edo jarraitutasunik gabeko definitutako taldeei zuzendutako ekintza puntualak eta noizbehinkako ekintzak dira. Bidegabekeriak zalantzan jartzen ditu, baina ez ditu arrazoiak sakontzen. Epe laburreko eginkizuna da. Kontzientziaziorako lehen urratsa da.
- **Garapenerako hezkuntza (GH):** ondo definitutako taldeei zuzendutako hezkuntza-prozesu arautua, sekuentziatua; taldeetara egokitutako metodologia zehatzak erabiliz. Pobreziaren arrazoiak aztertu eta sakontzen ditu. Epe luze eta ertaineko eginkizuna da. Ezagutzak balioei eta jarrerari lotuta doaz. Ekintzara bideratutako arazoaren kontzientziazio- eta ulermen-prozesua da.

Alorreko helburuak

Alorreko helburu espezifiko moduan definitzen dira honako hauek:

- Gasteizko herritarrengan elkartasuneko kultura sustatzea, munduko pobreziaren eta desberdintasun sozialaren arazoiei buruzko informazioa eskainiz eta pertsonen eta komunitateen arteko loturak sortzeko topaketarako aukerak eskainiz.
- Azterketa sakona eta hausnarketa kritikoa sustatzea ondo definitutako taldeetan, pobreziaren aurkako eta giza garapen iraunkorraren aldeko borrokan partaidetza aktiboa eta konprometitua bultzatzeko.
- Vitoria-Gasteizko Udaleko garapenerako lankidetzako ekintzekin eta programekin eta Garapenerako Hezkuntza eta Sentsibilizazioarekin lotutako informazio- eta prestakuntza-jarduerak garatzea, baita lankidetzako herrialdeekin eta testuinguruekin lotutako jarduerak ere.
- Bidezko merkataritzaren eta kontsumo arduratsuen txertaketa sustatzea, hauek garatuko dituen lan-plana abian jarritz: udal-administrazioaren alorrean erosketako politika etikoen garapena, bidezko merkataritzari lehentasuna ematea eta printzipioak herritarren artean zabaltea.

Garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioko eragileak

Udalaren garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioa hainbat eragileren inplikazioari esker gauzatzeko ondorioztatzen du Plan Zuzentzaileak:

- hirian presentzia, jarduera eta egitura duten GGKEak,
- hiriko beste eragile sozial batzuk, bereziki hauek:
 - Hainbat alorretako elkarteak eta kolektibo sozialak,
- hezkuntzako erakundeak eta hezkuntzako profesionalak,
- udala eragile hezitzaile moduan:

- Garapenean Laguntzeko Zerbitzua, askotariko tresnen kudeaketaren arduradun moduan eta, era berean, programa edo jarduera jakinetako zuzeneko erantzule moduan
- Herritarrei orokorrean edo sektore espezifikoari zuzendutako informazio-programak, programa hezitzaileak eta sozio kulturalak dituzten udaleko sailak eta zerbitzuak; horietan garapenerako hezkuntza zeharka landuko da edo udaleko komunikabideen erantzukizuna izango dute
- neurri txikiagoan, garapenerako hezkuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak edo programak koordinatzen dituen Euskal Fondoa eta beste sare edo mahai batzuk

Garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazio alorreko tresnak

Garrantzitsua da kontuan izatea bai garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazio alorreko ekintza motak, bai ekintza horiek kudeatzeko tresnak.

Ekintza motak

Egin beharreko “sentsibilizazio” motei dagokienez, udala hauetara mugatuko da:
Sentsibilizazioa:

Gasteizko gizartea orokorrean edo elkartasunezko konpromiso-jarrerak sustatzen dituzten talde jakinak bereziki sentsibilizatzen bideratutako ekintzak edo kanpainak. Sentsibilizazio-ekintza puntualak eta noizbehinkakoak dira. Garapen-bidean dauden herrialdeetako errealitatea ezagutzea eta herrialde aberatsekiko desberdintasun-egoera iragarazten duten arazoak eta mundu bati zein besteari eragiten dieten arazoak arteko loturak ezagutzea ahalbidetzen duten ekintzak dira.

Garapenerako hezkuntza

Vitoria-Gasteizko Udalak helburu kognitibo, afektibo eta jokabidezko helburu jakinekin eta hezkuntza-metodologia espezifikoekin definitutako publikoari zuzendutako hezkuntza-prozesuetan jotzen du garapenerako hezkuntza. Jarduera-eremua hezkuntza formala, ez-formala edo informala izan daiteke. Ekintzara bideratutako ezagutza, jarrera eta balioen bidez, elkartasunezko edo gizartearen eraldaketako jardueretan edo mobilizazioetan herritarren partaidetza sustatzen ahalegintzen da garapenerako hezkuntza.

Prestakuntza garapenerako lankidetzara eta garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazio arloko gaietan

Kolektibo espezifikoari, nahiz diruz lagundutako proiektuen eta programen kudeaketan inplikatutako pertsonen zuzendutako prestakuntza-jarduerak.

Informazioa, komunikazioa eta hedapena

Hauei buruzko informazio-kanpainak eta informazio-jarduerak: burututako garapenerako lankidetzako programak eta ekintzak eta garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioa; lankidetzako herrialdeak eta testuinguruak; eta garapenerako, globalizazioko eta garapenerako lankidetzako problematikak, eskuragarri dauden askotariko hedapen eta komunikabideak erabiliz.

Bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua

Gure inguruan bidezko merkataritzarekin lotutako hainbat alderdi jasotzen dira garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioaren alorrean; ez direla sentsibilizazio-ekintzetara soilik mugatzen kontuan hartuta.

Kudeaketako tresnak eta garapenerako hezkuntzaren eta sentsibilizazioen lerroak

Oro har, beharrezkoa da GGKEek eta beste erakunde sozialek proposatutako sentsibilizazioekintzak errealismoarekin bereiztea, eta deialdien testuinguruan sar daitezke eta hori GGKE jakinekin lankidetzan egitea bideragarria da (horrek hitzarmen berriak sinatzea ekar dezake). Hori baino bideragarriagoa eta eraginkorragoa da Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak udaleko beste zerbitzuekin elkarlanean egin ahal izatea, bai garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioaren alorrean, bai informazioaren eta komunikazioaren alorrean.

GGKEei eta hiriko beste erakunde batzuei zuzendutako finantziazio-tresnak eta finantziazio-lerroak

GGKEek bideratutako garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioa finantziazio-tresna edo -lerro hauen bidez kudeatuko da:

- sentsibilizatorako urteko deialdia
- hainbat urtetarako garapenerako hezkuntza-proiektuen deialdia (aurretik identifikazio-deialdia)
- boluntarioen prestakuntzarako SETEM Hego Haizea erakundearekin hitzarmena
- Bakeaz koadernoak argitaratzeko hitzarmena
- Oporrak Bakean programarako hitzarmena
- bidezko merkataritzaren eta kontsumo arduratsuenen sustapenerako hitzarmena
- Euskadiko GGKEko koordinatzailearekin hitzarmena
- garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioaren alorrean helburu espezifikoetara bideratutako beste hitzarmen batzuk

Udal-izaerako tresnak

Udal-izaerako tresnatzat hartzen ditugu hauek:

- Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak antolatutako garapenerako hezkuntzako eta sentsibilizazioko jarduerak,
- garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioa zeharka jasotzen duten udaleko beste sail edo zerbitzu batzuetako programak,
- udaleko komunikabideak.

Sentsibilizazioaren alorrerako lerro zuzentzaileen espezifikazioa

Elkartasuna sustatzea topaketa gisa / Lankidetzat tokiko giza garapenerako prozesu jarraituetan zentratzea

Bi lerro zuzentzaile horien konbinaketatik bi jarduera mota eratoritzen dira:

- lurralde berean epe ertainerako lankidetzaren esku-hartzearekin lotzen den kolektibo murriztuari zuzendutako sentsibilizazio-jarduerak, hartzaileentzako egokiak diren informazio-materialen elaborazioa eskatzen dutenak
- proiektuetako protagonistek Gasteizko kolektiboa bisitatu eta harekin esperientziak partekatzeko trukeak egitea

Aintzat hartuta bi jarduera motek baliabide espezifikoak eskatzen dituztela (proiektuetako aurrekontuetako lerroetan aurrez ikusita egon beharko dutela), landutako baliabide informatiboaren aprobeztamendu hobegatik eta trukeen inpaktu handiagoagatik kezka eduki beharra dago. Hala eta guztiz ere, modalitate zehatzak inplikaturako alderdien artean sortutako dinamiken mende egongo dira.

Gizon-emakumeen berdintasunaren sustapena

Alor horretan ere bereizitako estrategia definitzen da. Alde batetik, alorreko jarduera guztietarako aplikagarriak diren gutxieneko baldintzak finkatzen dira (nola antolatzen diren edo nork kudeatzen dituen albo batera utzita) baldintza hauetan:

- gizon-emakumeen jardueretan partaidetza erraztea
- materialetan hizkuntzaren erabilera sexista edo estereotipo sexisten erabilera saihestea, emakumeak pasibo eta ahul moduan (eta ez beren garapenaren eragile moduan) agertzen dituzten irudien erabilera eragozte

Bestalde, sentsibilizazio-deialdiaren baremazioan generoaren berdintasunari buruzko proiektuei lehentasuna ematen zaie.

Azkenik, hainbat urtetarako garapenerako hezkuntza-proiektuetan, generoa eta garapena lehentasunezko gaitzat hartzeaz gain, baldintzat jotzen da proposatutako jarduera guztiek generozko ikuspegia izatea.

Hiriko etorkinen kolektiboekin lotutako lankidetzaren sustapena

Gasteiz etorkin kolektibo zabalen harrera-gizarte bilakatu izanak, aukeraz beteriko hezkuntza-errealitatea eskaintzen du eta garapenerako hezkuntza- eta sentsibilizazio-lana berrikustea eskatzen du, kulturen arteko topaketarako eta haien artean aberasteko interkulturalitatearen balioak txertaketaz hitz egiteko.

Nazioarteko elkartasun-sentimenduarekin eta herritartasun globalerako hezkuntzarekin lotuta, kultur aniztasunaren eta bestelako ohitura eta bizimoduaren aurrean errespetuzko eta ulermenezko giroa bultzatzean datza, bizikidetzan eta desberdintasunen alderdi positiboan heziz, bereziki gure hirian dauden etorkinei dagokienez.

Etorkinen kolektiboen presentziak herrialde edo problematika jakinei buruz transmititzen diren ikuspegiak pertsona horienekin alderatzera behartzen duela dirudi eta hartzaile posibletzat jotzera, baina baita informazio-iturritzat eta garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazio alorreko kolaboratzailetzat hartzera ere.

Sentsibilizazioko eta Garapenerako Hezkuntzako deialdietan etorkinen edo etorkinen kolektiboen partaidetza gaiaren edo kolektiboaren kopuruaren arabera puntuatzen da eta Garapenerako Hezkuntzan lehentasunezko hartzen da migrazioen gaia eta, dagokionean, kulturarteko faktoreen txertaketa ere puntuatzen da, bai identifikazioan eta planifikazioan, bai exekuzioan.

Hala ere, garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioko programen testuinguruan interkulturalitatea bestelako programa batzuetatik bereizteak dakarren zailtasuna nabarmendu behar da. Hori dela eta, beharrezkoa da irizpide zehatzagoak definitzea. Horrek udaleko beste zerbitzu eta sailekin koordinatzea eskatzen du, hala nola immigrazioarekin zuzenean lotutako zerbitzuekin (Norabide) edo kulturarteko ikuspegia jasotzen dutenekin.

Udalak garapenerako eta sentsibilizatorako hezkuntza-programetan duen inplikazioaren sakontzea

Udaleko zerbitzu eta sail askok definitutako publikoari –adin tartek zein sektoreak definituta– zuzendutako sentsibilizazio-jarduerak edo gizarte-hezkuntzako programak dituzte. Programa horietan –puntualki edo zeharka– GGKE edo Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren elkarlana-

rekin garapenerako hezkuntzako eta sentsibilizazioko jarduerak edo edukiak txertatzea programa eta baliabide gehiago eskuragarri izateko eta garapenerako hezkuntzan eta sentsibilizazioan ezohikoak diren publikoetara heltzeko modua da.

Era berean, Garapenerako Hezkuntzako hainbat urtetarakoen deialdian, onartutako proiektuetan bestelako zerbitzu eta sailen lankidetzak sustatzen jarraituko da.

Garapenerako hezkuntzaren eta sentsibilizazioaren kalitatearen eta eraginkortasunaren hobekuntza

Hiriko sentsibilizazio-ekintzen eraginkortasunari buruzko zalantzak hainbat alditan adierazi dira eta maiz dagoeneko sentsibilizatutako publiko berari soilik iristen zaizkiola adierazi dute, publikoari dagokionez, nahi izan gabe, elkarrekin lehian diren askotariko jarduera eta gaietan.

Sentsibilizazioko publiko hartzaileak ahalik eta zehaztasun handienarekin dibertsifikatzeko eta identifikatzeko beharra azpimarratzen da eta publiko jakinarentzako ekintzak publiko zabalarentzako interesgarriak izan daitezkeen ekintzetatik bereiztearen komenigarritasuna nabarmentzen da.

GGKEetako eta beste erakunde sozialetako publikoez edo sareez gain (adierazi den moduan), garapenerako hezkuntzak eta sentsibilizazioak udaleko gizarte-hezkuntzako programetako publikoak gero eta gehiago eskuratzearen alde egiten du Planak. Horrez gain, EHUko Arabako Campuseko askotariko erakundeetarako hurbilketa egitea proposatzen du, interesatuta egon daitezkeen haiekin nolabaiteko lankidetzak finkatzeko.

Gaien sakabanaketa murrizte aldera, Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak urte bakoitzeko lehentasunezko gaia aukeratuko du eta garapenerako hezkuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak kontzentratuko ditu, harekin lotutako lankidetzako eragileekin batera lan eginez.

Era beran, jardueren agenda kudeatzeko esfortzua egitea komeni da publiko berari zuzendutako jarduerak bat etortzea saihesteko.

Garapenerako hezkuntzako eta sentsibilizazioko askotariko tresnen deskribapen eskematikoa

Atala egin beharreko garapenerako hezkuntza- eta sentsibilizazio-ekintza moten arabera ordenatzen da: sentsibilizazioa, garapenerako hezkuntza, prestakuntza, bidezko merkataritza, informazioa eta komunikazioa; mota bakoitzerako GGKEei eta udaleko tresnetako beste erakunde sozialei zuzendutako finantziazio-tresna edo finantziazio-lerro bakoitza bereiziz.

Sentsibilizazioa

GGKEei eta beste erakunde sozial batzuei zuzendutako finantziazio-tresnak edo -lerroak

DEIALDIA: “NAZIOARTEKO ELKARTASUNERAKO SENTSIBILIZAZIO-EKINTZEN BATERAKO FINANTZAKETA VITORIA-GASTEIZEN”	
Aldizkakotasuna	Urterokoa
Helburua	Nazioarteko elkartasunerako informazio- eta sentsibilizazio-ekintza puntualak bultzatzea
Ekintza mota	Jarduera puntual txikiak: <ul style="list-style-type: none"> • konferentziak, hitzaldi informatzaileak • prestakuntzako ikastaro laburrak • mintegiak • erakusketak Programatutako hedadura handiagoko jarduerak <ul style="list-style-type: none"> • kontzientziatzeko kanpainak • gaikako asteak edo hamabostaldiak • ikuskizunak, sentsibilizazio-erakunde antzezlanak • inpaktuko ekitaldiak
Generoa	Proiektu guztietarako definitutako gutxieneko baldintzak Lehenetsitako generoaren berdintasunari buruzko proiektuak
Udaleko beste zerbitzu batzuen lankidetzak	Jarduerak udaleko beste zerbitzu batzuen programazioetan sartzeko aukera; adibidez, data berezien inguruan (nazioarteko egunak eta abar)

“OPORRAK BAKEAN” PROGRAMARAKO HITZARMENA	
Denborazkotasuna	Urteko hitzarmena (2004tik)
Helburua	Udako hilabeteetan Arabako familiek Tindoufeko (Aljeria) kanpamenduetako haur sahararrei harrera egiten diete Programaren helburuetako bat Arabako gizartea Saharako herriaren egoerari buruz sentsibilizatzea da
Hauek sinatzen dute:	Vitoria-Gasteizko Udala, Arabako Foru Aldundia, Fronte Polisarioaren ordezkariak EAEn eta Saharako haurrak hartzen dituzten familien elkarteak – AFANIS

Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak egindako jarduerak

GAIKAKO KANPAINA	
Denborazkotasuna	Urterokoa
Jarduera mota	Gaiaren arabera Argitalpena (Bakeaz koadernoak) Hitzaldia edo mintegia Publikoari irekitako erakusketa edo bestelako jarduera Informazioa
Publiko hartzailea	Gaiaren arabera

Lankidetzaren udaleko beste sail eta zerbitzu batzuekin

Garapenerako hezkuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak eta -edukiak txertatzeko Garapenean Laguntzeko Zerbitzuarekin dagoeneko adostutako udaleko beste zerbitzu eta sailletako programak zerrendatuta datoz hemen:

HEZKUNTZA SAILA	
Programa	Hezkuntza-agenda
Aldizkakotasuna	Urterokoa
Publiko hartzailea	Haur, lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleak eta/edo irakasleak, gurasoak eta helduen beste kolektibo batzuk
Programaren helburua	Ikasturte bakoitzerako udalak eskainitako hezkuntza-jarduerak
Garapenerako hezkuntzako eta sentsibilizazioko edukiak	GGKE eta Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren garapenerako hezkuntza- eta sentsibilizazio-jardueren txertaketa
GLZren lankidetzaren	<ul style="list-style-type: none">• Existitzen diren jardueren bilketa• Jarduera berrien sustapena• Inskripzioen kudeaketa

GAZTERIA ZERBITZUA (HERRITAR HARREMANEN SAILA)	
Programa	Jolasen nazioarteko jaialdia
Aldizkakotasuna	Urterokoa (ekaina – uztailea)
Publiko hartzailea	Adin guztietako publikoa, baina batik bat haurrak, gurasoak eta nerabeak
Programaren helburua	Kaleko jolasen jaialdia
Garapenerako hezkuntzako eta sentsibilizazioko edukiak	Garapenerako lankidetzaren eremu espezifikoak: lankidetzako jolasak eta jolas kooperatiboak, bidezko merkataritzako jostailuak, urteko gaiarekin lotutako jolasak edo jarduerak
GLZren lankidetzaren	Lankidetzaren edukien eta jardueren diseinuan Ekarpen ekonomikoa

GAZTERIA ZERBITZUA (HERRITAR HARREMANEN SAILA)	
Programa	Azoka Txiki Solidarioa
Aldizkakotasuna	Urterokoa
Publiko hartzailea	<ul style="list-style-type: none"> • Parte hartzen duten ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleak. • Gizarte etxeetako ludoteketako haurrak
Programaren helburua	Sentsibilizazioa elkartasunean
Garapenerako hezkuntzako eta sentsibilizazioko edukiak	Parte hartzen duten hurrek egoera onean dauden erabilitako jostailuak jasotzen dituzte ikastetxeetan, eta gurasoek lagunduta prezio onean saltzen dituzte azokan. Lortutako dirua hurrekin lotutako garapen-proiektura bideratzen da. Proiektua ikasgeletan eta ludoteketan lantzen da alde zuzeneko proiektua kudeatzen duen GGKEaren laguntzarekin
GLZren lankidetzak	<ul style="list-style-type: none"> • Aholkularitza • Proiektuaren hautaketa. • Ekarpeneko ekonomia

GAZTERIA ZERBITZUA (HERRITAR HARREMANEN SAILA)	
Programa	Ludoklubuen programa
Aldizkakotasuna	Urteko programa
Publiko hartzailea	Ludoklubetan parte hartzen duten 10-15 urte arteko haurrak
Programaren helburua	Jolasteko aisialdirako espazioak
Garapenerako hezkuntzako eta sentsibilizazioko edukiak	Elkartasunerako hezkuntza-programa: garapenerako hezkuntza-konzeptuak, jardura dinamiko, parte-hartzaile eta ludikoen bidez, taldeko hausnarketa laburrez jarraituta
GLZren lankidetzak	<p>Ekarpeneko ekonomia</p> <p>Aholkularitza</p>

BERDINTASUNERAKO ZERBITZUA (HERRITAR HARREMANEN SAILA)	
Programa	Martxoaren 8ko –Emakumearen nazioarteko eguna– eta azaroaren 25eko –Emakumearen aurkako indarkeria desagertzeko nazioarteko eguna– programazioa
Aldizkakotasuna	Urterokoa
Publiko hartzailea	Emakumeen hainbat kolektibo
Programaren helburua	Gizon-emakumeen berdintasunerako sentsibilizazioa
Garapenerako hezkuntzako eta sentsibilizazioko edukiak	Lankidetzako edo giza eskubideen babeseko proiektuekin lotutako esperientziak
GLZren lankidetzak	Jardueren proposamena

BERDINTASUNERAKO ZERBITZUA (HERRITAR HARREMANEN SAILA)

Programa	Ahalduntzeko eskola (abian jartzeko fasean)
Aldizkakotasuna	Iraunkorra
Publiko hartzailea	Emakumeen hainbat kolektibo
Programaren helburua	Topaketarako eta hausnarketarako lekua; eskolak prestakuntzako funtsezko osagaia izan nahi du
Garapenerako hezkuntzako eta sentsibilizazioko edukiak	Lagundutako lankidetzeta-proiektuekin edo garapen-bidean dauden herrialdeekin lotutako esperientziak
GLZren lankidetzeta	Jardueren proposamena GGKEen lankidetzeta erraztea Garapen-bidean dauden herrialdeetako emakumeen elkarteekin harremana

MONTEHERMOSO KULTURUNEA (KULTURA SAILA)

Programa	Zine eta eztabaida zikloa “Giza Eskubideen horizontea XXI. mendean”
Aldizkakotasuna	Urterokoa (hainbat aste)
Publiko hartzailea	Orokorra
Programaren helburua	Giza eskubideei buruzko informazioa eta sentsibilizazioa
Garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioko edukiak	Garapenerako lankidetzarekin eta garapen-bidean dauden herrialdeetako giza eskubideekin lotutako filmak
GLZren lankidetzeta	<ul style="list-style-type: none"> • Aholkularitza • Ekarpn ekonomikoa • Filmen proposamena

BARNE KOMUNIKAZIORAKO ZERBITZUA (FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA)

Programak	Vitoria-Gasteizko Udalaren funtzionamendura zuzendutako sentsibilizazio-kanpainak
Aldizkakotasuna	Urteroko kanpaina
Publiko hartzailea	Vitoria-Gasteizko Udaleko funtzionarioak
Programaren helburuak eta edukiak	Hasiera batean, 2010 eta 2011. urteetan, kanpainak bidezko merkataritzarekin eta kontsumo arduratsuekin izango du zerikusia
Lankidetzeta	Kasu horretan, Barne Komunikaziorako Zerbitzua da Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak proposatutako kanpainen laguntzen duena

Plan Zuzentzaileak irauten duen artean, oro har, udaleko beste zerbitzu eta sailekin jarriko gara harremanetan garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioa programetan edo jardueretan txertatzearen bideragarritasuna aztertzeko.

Lankidetzaren beste erakunde eta sare batzuekin

Orain arte, lankidetzari dagokionez beste erakundeekiko lankidetzaren Arabako Foru Aldundiarekin egin da eta zenbait kasutan Euskal Funderoarekin erakusketei dagokionez. “Lankidetzaren argazkietan jasoa” programari jarraipena emango zaio.

“LA COOPERACIÓN EN IMÁGENES / LANKIDETZAREN ARGAZKIE TAN JASOA” LEHIAKETA ETA ARGAZKIE TAN ERAKUSKETA	
Antolatzaileak	Vitoria-Gasteizko Udala eta Arabako Foru Aldundia
Denborazkotasuna	Bi urtez behingoa: urte batean lehiaketa eta hurrengoan erakusketa. Lehiaketa 2010ean eta 2012an
Lehiaketa	Vitoria-Gasteizko Udalak edota Arabako Foru Aldundiak diruz lagundutako lankidetzaren proiektuak garatutako tokietan hartutako irudiak biltzen dituzten argazkiak soilik aurkez daitezke lehiaketara
Erakusketa	Lehiaketara aurkeztutako argazki guztiak erakusten ditu. Bisita gidatuak eta Garapenerako Hezkuntzako jarduerak. Vitoria-Gasteizen ematen zaio hasiera eta ondoren batetik bestera ibiliko da Arabako hainbat herritan. Eskatuz gero, ikastetxetara ere eramaten da
Antolatzaileak	Vitoria-Gasteizko Udala eta Arabako Foru Aldundia

Koordinazioko lerro zuzentzailearekin koherentzian, baliabideen eta denboretan aprobetxamendu hobea eta inpaktu handiagoa esan nahi duen heinean, EAEko lankidetzaren erakundeekin sentsibilizazioko jardueraren edo programa gehiago koordinatzen ahaleginduko gara.

Garapenerako hezkuntza

Garapenerako hezkuntzako hainbat urtetarako proiektuen deialdia

GARAPENERAKO HEZKUNTZAKO HAINBAT URTETARAKO PROIEKTUEN DEIALDIA	
Denborazkotasuna	Urterokoa – hiru urtez behingo zikloa: bigarren eta hirugarren urteetan deialdia lehenengo urtean onartutako proiektuetarako erreserbatuta dago 2 edo 3 ikasturtetan garatzeko proiektuak Hasierako hurrengo deialdia: 2011
Helburua	Garapenerako hezkuntza-proiektuen baterako finantzaketa
Ekintza mota	Ondo definitutako taldeei zuzendutako hezkuntza-ekintza arautuak eta sekuentziatuak eta publikoarengana heltzeko helburuak eta estrategiak, eta balioen eta jarreraren aldaketa bultzatzen duten hezkuntzako helburuak, ekintzara bideratutakoak. Izaera ebolutiboa izango dute. Azken ikasturterako gutxienez, dimentsio politikoko (adibidez: kolektibo hartzaileen partaidetza elkartasunezko edo gizartearen eraldaketako jarduera edo mobilizazioetan) edo kulturaleko (jokaerak) emaitzak lortu beharko dira
Lehetasunezko gaiak	Giza eskubideak, bidezko merkataritza, kontsumo arduratsua, elikadurazko subiranotasuna, kanpo-zorra, globalizazioa, generoa eta garapena, Afrikako kontinentearen egoera, migrazioak
Baldintzak	Partzuergo (gutxienez 2 erakundez osatutakoa) edo sare egonkorak aurkeztua Generozko ikuspegiaren txertaketa
Generoa	Generozko ikuspegiaren txertaketa baldintza da proiektuko fase guztietan: identifikazioa, formulazioa, helburuak, emaitzak, jarduerak eta materialak
Udaleko beste zerbitzu batzuen lankidetzak	Sail jakinetako hezkuntza-programetan jarduerak txertatzeko aukera

“Garapenerako hainbat urtetarako hezkuntzako baterako proiektuen identifikazioa eta formulazioa” deialdia

Aurrekoa prestatzen duen deialdia da.

“GARAPENERAKO HAINBAT URTETARAKO HEZKUNTZAKO BATERAKO PROIEKTUEN IDENTIFIKAZIOA ETA FORMULAZIOA” DEIALDIA	
Denborazkotasuna	Hiru urtez behingo deialdia Hurrengo deialdia: 2010-2011
Helburua	Bi edo hiru urtetan garatzeko Garapenerako Hezkuntzako proiektuen identifikaziorako, planifikaziorako eta formulazio teknikorako ekintzen baterako finantzaketa
Baldintzak	Partzuergo (gutxienez 2 erakundez osatutakoa) edo sare egonkorrak aurkeztua Generozko ikuspegiaren txertaketa
Generoa	Generozko ikuspegiaren txertaketa baldintza da proiektuko fase guztietan: identifikazioa, formulazioa, helburuak, emaitzak, jarduerak eta materialak

Prestakuntza

GGKEei zuzendutako finantziazio-tresnak edo finantziazio-lerroak

GARAPENERAKO LANKIDETZARAKO BOLUNTARIOEN PRESTAKUNTZARAKO PROGRAMA AURRERA ERAMATEKO SETEM HEGO HAIZEA GGKEAREKIN HITZARMENA	
Aldizkakotasuna	Urterokoa
Helburua	Ikastaro teoriko-praktikoen antolaketa. Parte-hartzaileak nagusiki gazteak dira eta garapen-bidean dauden herrialdeetako errealitatearekin eta gure gizartearekin dituzten harremanekin lotutako hainbat gairi buruzko prestakuntza jasotzen dute. Gazte horietako batzuk GGKE horretako lankidetzaproiekturen batean parte hartzeko aukera izaten dute, elkartasun-esparru delakoen bidez
Justifikazioa	Vitoria-Gasteizen modu jarraituan garatzen den programa bakarra da. Maiz egin diren kanpo-ebaluazioetan emaitza oso onak eman ditu
Generoa	Boluntarioak trebatzeko programak generoari eta garapenari buruzko moduluak jasotzen ditu

Zerbitzuak antolatutako jarduerak

Atzemandako prestakuntza-beharren arabera, Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak lankidetzako eragileei edo garapenerako hezkuntza- eta sentsibilizazio-eragileei zuzendutako prestakuntza-jarduerak antolatu ahal izango ditu; batik bat, beharrezko kontzeptuak ezagutzeko, lankidetzara garatzen den herrialdeetako eta testuinguruetako azterketa egiteko eta proiektuak kudeatzeko tresnak ezagutzeko (identifikazioa, diseinua eta formulazioa, kontabilitateko aplikazioak, txostenak eta abar).

Udaleko beste zerbitzu batzuekin koordinazioan egindako jarduerak

Dagokionean prestakuntza-jarduerak udaleko beste zerbitzu batzuekin koordinatuko dira. Horrek sentsibilizazio-jardueretako metodologia hobetzea xede duten prestakuntzak eragingo ditu batik bat, Udaleko Herritarren Parte Hartzerako Zerbitzua mota horretako jarduerak antolatzen baititu.

Beste erakunde batzuekin koordinatutako jarduerak

Adierazi den moduan, interes komuneko prestakuntzak EAEko beste erakunde batzuekin koordinatzen ahaleginduko gara (Arabako Foru Aldundia, Euskal Fondoa, Eusko Jaurlaritza).

Informazioa, komunikazioa eta hedapena

Informazio- eta komunikazio-estrategiak, garapenerako lankidetzari dagokionez, udal guztia-erentzako komunikazio-politika orokorrarekin koherentea izan behar du, beraz, estrategia 2010. urtean Komunikazio eta Protokolo Zerbitzua definitzen ahaleginduko da.

Bakeaz elkartearekin hitzarmena

Bakeaz Elkartearekin sinatutako hitzarmenari jarraipena emango zaio.

BAKEAZ KOADERNOEN BILDUMAN AZTERKETAK ARGITARATZEKO HITZARMENA	
Sinatzailea	BAKEAZ, Bakeari buruzko Dokumentazio eta Ikerkuntzarako Zentroa
Helburua	Garapenerako lankidetzeta, geopolitika edo garapenerako hezkuntza gaiekin lotutako hiru lanen edizioa urteko
Denborazkotasuna	Urteko hitzarmenak
Gaien aukeraketa	Garapenean Laguntzeko Zerbitzua (bereziki urteko gaiarekin lotutako bat) eta Garapenean Laguntzeko Kontseilua
Justifikazioa	Udalaren lankidetzarako interes gehien duten gaiak txertatzeko gaitasuna. Orain arte argitaratutako materialen kalitatea eta harrera

Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren memoria

Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak zerbitzuari buruzko urteko txostena landuko du eta Herritar Harremanen Saileko memorian jasotzeaz gain, Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean eskuragarri egongo da. Memoria zabaltzeko CD euskarrian editatuko da eta udalaren webgunean esekiko da.

Udaleko komunikabideak

Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak azpidomeinua izango du Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean eta hor bereziki hauek jasoko dira:

- udalaren lankidetzari buruzko informazioa (planak, memoriak eta abar)
- eskaerak aurkezteko eta diru-laguntzak kudeatzeko beharrezko tresnak
- zerbitzuak antolatutako jardueri buruzko informazioa

Era berean, udaleko aldizkariak erabiliko dira herritarrei eta udaleko langileei informazioa eskaintzeko.

Kategoria jakinei edo udaleko langileen multzoari zuzendutako informazio-, komunikazio- eta hedapen-jardueren kasuan Barne Komunikaziorako Zerbitzua koordinazioan egingo da (Funtzio Publikoaren Saila).

Beste komunikabide batzuk

Komunikazio-estrategiaren bizkar, irratiragarkiak eta prentsa-iragarkiak hedatzea aurrez ikusita dago, publikoari oro har irekitako sentsibilizazio-jarduerari publizitatea emateko.

Ikus-entzunezkoen errealizazioa ikus-entzunezko komunikabideen hedapen-bermeen mende geratuko da.

Bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua

2008ko ekainaren 23ko aitorten instituzionalari jarraiki, udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

1. Jarduera-eremuan pixkanaka bidezko merkataritzako produktuak txertatzen joatea: kafea, opari instituzionalak, uniformeak, jantokiak...
2. Lankidetzako eta sentsibilizazioko deialdietako ildo estrategikoak eta oinarriak berrikus-tea, bidezko merkataritzarekin lotutako jarduerak sustatze aldera.
3. Gasteizko herritarrei bidezko merkataritzak pobrezia-aren aurkako borrokan duen inpaktuari, generozko ekitateari eta mundu bidezkoago eta iraunkorragoari buruz informatzea eta sentsibilizatzea.
Konpromiso horiek Gasteizko herritarrei edo bertako sektoreei zuzendutako sentsibilizazio-kanpaina espezifikoetan zehaztu behar dira.
4. Bidezko merkataritzako produktuen txertaketari eta horien egiazkotasunari buruzko jarraipen eraginkorra egitea.

VITORIA-GASTEIZKO UDALAREN ALORREAN BIDEZKO MERKATARITZA SUSTATZEKO GGKEAREKIN LANKIDETZA-HITZARMENA	
Sinatzaileak	SETEM-HEGO HAIZEA, INTERMON OXFAM eta MEDICUS MUNDI ARABA
Justifikazioa	Bidezko merkataritzan sistematikoki jarduten duten hiriko hiru GGKEak dira
Helburua	Vitoria-Gasteizko herritarrak bidezko merkataritzari buruz informatzeko eta sentsibilizatzekeo baterako lankidetzak eta jarduerak. Udalaren erosketetan bidezko merkataritzako produktuen txertaketaren jarraipena. Bidezko merkataritzako denden nazioarteko egun ospatzea.
Denborazkotasuna	Indarraldia: 2009-2011, urteko plan operatiboekin
Beste lankidetzak batzuk	Urteko Plan Eragilea onartzean, erakunde berriak atxiki ahal izango dira, Lankidetzako Hizarmen-markoarekiko atxikipen-dokumentua sinatuz

Beste zerbitzu eta sail batzuekin lankidetzan egindako jarduerak

Bidezko merkataritzarekin lotutako gaia eta ekintzak udalaren beste ekitaldi edo programetan jasoko dira, bereziki Jolasen Nazioarteko Jaialdian.

Era berean, Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Eguna udalaren Hezkuntza-agendan jasoko da.

Kalitatea eta eraginkortasuna hobetzeko neurriak

Ikerketa

Erakunde edo pertsona adituei azterketak eta lan teknikoak egiteko eskatu ahal izango zaie, dagokionean Estrategia Plangintza eta Koordinazio Zerbitzuaren Azterketa Kabinetearen laguntzarekin.

Ebaluazioa

Jardueren eraginkortasuna hobetze aldera, ebaluazioa garapenerako hezkuntza-tresnatzat txertatu nahi da. Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak ITECO belgikar GGKEaren proposamena jaso nahi du. Multzoa osatzen duten zortzi alderditan banatutako ebaluazioa da eta emaitza ez da horien batura, denen arteko erlazioa baizik: hautatutako problematika, identifikatutako publikoa, hezkuntza-tresnak, parte-hartzaileak, hedapenaren ondorioak, hezkuntza-metodoak, prozesuaren ondorengo publikoaren aldaketak eta testuinguruaren ondorioak.

Kanpo-ebaluazioak hainbat urtetarako garapenerako hezkuntza-proiektuetan egitea dago aurrez ikusita bereziki, ebaluazioak hurrengo hainbat urtetarako proiektuaren identifikazioarekin bat eginez.

GGKE eta beste erakundeen garapenerako hezkuntza- eta sentsibilizazio-lanari laguntza

Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak garapenerako hezkuntza- eta sentsibilizazio-lana erraztuko du aretoen kudeaketaren bidez eta udalak diruz lagundutako eta jardueren agendan jasotako hitzaldiak, ekitaldi publikoak, jardunaldiak eta abar egiteko udalaren bestelako baliabideen bidez.

Hori horrela, Euskadiko Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeen Koordinakundearekiko hitzarmena GGKEen lana bultzatzeko tresnatzat jotzen da. Aipatutako hitzarmena beste erakunde batzuekin ere sinatu ahal izango da.

HITZARMENA EUSKADIKO GGKE KOORDINAKUNDEAREKIN	
Sinatzaileak	Vitoria-Gasteizko Udala, Euskadiko GGKE Koordinakundea eta, kasuan kasu, beste erakunde publiko batzuk
Helburua	Zerbitzuen hornidura Koordinakundeko kide diren GGKEei eta publikoari (informazioa, prestakuntza, baliabideen kudeaketa, erakundeekin elkarrizketa, komunikazioa eta abar)
Denborazkotasuna	Urteko hitzarmenak

Parte-hartzea

Herritarren partaidetzari dagokiona garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioaren alorrean jasoko dugu, gure ustetan "hirian jardutearen" barruan sartzen baita.

Garapenean Laguntzeko Kontseilu Sektoriala Vitoria-Gasteizko Udalaren partaidetza-organoa da. 1999. urtetik etengabe funtzionatu du eta kontsultarako organotzat hartzen da. Horren ibilbideak izaera informatzailea nagusitu dela adierazten du. Udalak kontseiluan ematen du zehaztasunez garatutako programen eta jardueren berri, baita onartuko dituen hitzarmenen berri ere.

Ez dagokion Plan Zuzentzaileari Garapenean Laguntzeko Kontseiluak zer izan behar duen definitzea, beraz, ekimenek kontseilutik eta bertako kideen nahietatik atera behar dute. Hori kontuan hartuta, berehalako etorkizuneko jardueretarako eszenatokiak eta lerroak hauek izan daitezke:

- izaera proposatzailea areagotzea
- prestakuntzarako espazio moduan erabiltzea; erakundeek bertan beren esperientziak aurkeztuko dituzte
- hegoaldearekin topaketak eta trukeak egiteko leku moduan hartzea eta bertan aurkako alderdien esperientziak ere aurkeztea

BOSGARREN ATALA

PLANAREN ERAGINKORTASUNA **Baliabideak, emaitzak eta ebaluazioa**



BOSGARREN ATALA

PLANAREN ERAGINKORTASUNA

Baliabideak, emaitzak eta ebaluazioa

Giza baliabideak

Plan Zuzentzailea materializatzea zalantzarik gabe tartean sartutako eragile multzoaren giza baliabideen mende dago.

Gaitasun horien konbinazioa planaren potentzialtasunetako bat den arren, beharrezkoa da azpimarratzea gure herrialdean garapenerako lankidetzaren sektorea, bai GGKEetan, bai erakundeetan, giza baliabide profesional mugatuak dituen sektorea dela. Horrez gain, GGKEen kasuan lan-baldintzak nolabaiteko ezegonkortasunagatik nabarmentzen dira, oro har, eta langileen txandatzatze nabarmena ikusten da. Era beran, proiektuak garatzen dituzten garapen-bidean dauden herrialdeetako elkarteak eta erakundeak giza baliabide mugatuak dituzten erakundeak izan ohi dira askotan.

Vitoria-Gasteizko Udalaren kasuan, garapenerako lankidetzara bideratutako giza baliabideak, alde batetik, Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak dira eta, bestetik, lankidetzako askotariko programetan eta tresnetan parte hartzen duten beste sail eta zerbitzuetako profesionalak, zeregin horietarako lanaldiaren zati mugatua soilik emango dutela jakinda.

Garapenean Laguntzeko Zerbitzua lanaldi osoko hiru plaza tekniko osatuta dago, lanaldi erdian balioetsi daitekeen laguntza administratiboarekin. Dimensio hori ez da nahikoa 2009an 3.000.000 €-ko aurrekontua kudeatzeko, Plan Zuzentzaileak planteatzen duen kalitate eta eraginkortasunari dagokion konplexutasun eta eskakizun mailarekin. Hain zuzen, planak planteatzen dituen berrikuntzako edo hobekuntzako zenbait proposamen zerbitzuko giza baliabideak areagotzearen mende daude.

Horregatik proposamen hauek egiten dira planaren indarraldirako:

- lankidetzako teknikari programako plazaren finkapena
- zerbitzuko buruzagitzaren sorrera
- planaren epealdian hirugarren plaza teknikoaren sorrera

Garapenerako lankidetzarako aurrekontua

Vitoria-Gasteizko Udalak udaleko aurrekontuen diru-sarrerara arrunten (diru-sarrerei buruzko 1-5 kapituluak) baturatik kalkulaturako ehunekoaren % 1, 2010-2013 Plan Zuzentzailearen indarraldian, Garapenerako Laguntza Ofizial moduan emateko konpromisoa hartu du.

Tokiko hainbat erakundeetako GLO konparatze aldera eta “Espainiako Lankidetzako NLUP jarraipenaren” irizpideari jarraiki, udaleko finkatutako gastuen aurrekontuetako ehunekoa ere kontuan hartuko da.

Eremu eta tresnen arabera aurrekontuaren banaketari buruz

Plan Zuzentzaileak ez du garapenerako lankidetzaren aurrekontuaren eremu, tresna eta eragileen arabera egindako banaketa zehazteko asmorik, ezta gutxieneoak eta gehienekoak finkatzeko asmorik ere.

Zalantzarik gabe, aurrekontuaren banaketa funtsezko elementua da garapenerako lankidetzapolitika zehazterakoan, horregatik, banaketarik ez proposatze planaren ahultasuntzat jo daiteke, baina hori pisuzko hainbat arrazoirekin justifikatzen da:

- Lankidetzaren banaketa, oro har, deialdien antzerako tresnen mende egoten da hein handian eta horiek oso irekiak izaten dira eta emaitzak aurkeztutako ekimenen mende, nahiz eta oinarriek finkatutako lehentasunen mende egoten dira.
- Horrek alor geografikoari (planak hor ez du herrialdeen lehentasunik definitzen), zein banaketa sektorialari (planak hor lehenetsitako bi proiektu mota besterik ez ditu aipatzen) eragiten dio: bidezko merkataritzako ekimen ekonomikoei dagozkienak eta emakumeak ahalduzko eta gizon-emakumeen berdintasunerako proiektuak. Bi kasuetan, ez da erraza eragileen ekimenei buruzko aurreikuspenak egitea eta planak banaketa geografikoko edo sektorialeko ehunekorik ez finkatzea erabaki du.
- Tresna berrien kasuan (garapenerako lankidetzaren urteko deialdi berria, esaterako), zaila da jakitea nolakoa izango den GGKEen harrera, hortaz, deialdiko hornidura egokitu egin beharko da lehenengo urteetan.
- Estrategia berrien kasuan, hiriko etorkinen kolektiboekin lotutako lankidetzaren sustapenerako estrategiaren kasuan, esaterako, aurrez ezin ikus daiteke eskaera maila zein izango den (kolektibo horien nahiaren mende dago, baina baita haiekin elkarlanean aritzea pentsatzen duten beste erakundeen mende ere), ezta hura aurrera eramatea ahalbidetuko duten modalitateak zein diren ere, beraz, ez du zentzu handirik gutxieneoak eta gehienekoak finkatzea.
- Eragile-kategorien arabera gutxieneko edo gehieneko ehunekoak finkatzea eta ondorioz beste erakunde sozial edo udaleko erakundeek egindako lankidetzak mugatuz GGKEek kudeatutako lankidetzari ehuneko jakina bermatzeko nahiak, hain zuzen, zerikusi gutxi du lankidetzaren kalitatearekin eta eraginkortasunarekin eta hirian elkartasun loturak finkatzearekin. Ez da planaren funtzioa finkatutako lerroekin koherenteak diren ekintzak mugatzea.

Nolanahi ere, Vitoria-Gasteizko Udalaren garapenerako lankidetzaren ibilbidearen irakurketa errealistak lankidetzak horretako joera nabarmenak epe ertainera ez direla aldatuko iradokitzen du, bereziki, kudeaketara bideratutako giza baliabideak kontuan hartzen badira.

Planaren emaitzak eta adierazleak

Aurrekontuetako adierazle orokorrez gain, lankidetzaren alorrerako adierazleak definitzen dira eta garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioaren alorrari dagokion baten bat aurreratzen da. Nolanahi ere, aitortu beharra dago zailtasuna duela esanguratsuak diren, jatorrizko datuekin alderatu daitezkeen eta biltzeak gehiegizko kostua ekarriko ez duen adierazleak definitzeak eta biltzeak.

Urteko aurrekontuen adierazle orokorrak

ADIERAZLEA	2009KO DATUAK
Exekutututako aurrekontuaren % / diru-sarrerari buruzko 1-5 kapituluak (aitortutako eskubideak)	% 0,93
Eremuen araberako banaketa	
Garapenerako lankidetzako ekintzetara bideratutako aurrekontuaren %	% 85,7
Ekintza humanitarioetara eta larrialdiko ekintzetara bideratutako aurrekontuaren %	% 3,1
Garapenerako hezkuntza- eta sentsibilizazio-ekintzetara bideratutako aurrekontuaren %	% 9,9
Bestelako ekintzetara bideratutako aurrekontuaren % (jarraipena, ebaluazioak, azterketak, trukeak)	% 1,3
Eragileen araberako banaketa	
GGKEk kudeatutako aurrekontuaren %	% 76,8
beste erakunde sozial batzuk kudeatutako aurrekontuaren %	% 6,5
Euskal Fondoak eta udaleko erakundeek edo programek kudeatutako aurrekontuen %	% 10,1
Nazioarteko erakundeek kudeatutako aurrekontuen %	% 2,0
Zuzeneko kudeaketako aurrekontuaren %	% 4,7

Garapenerako lankidetzaren alorra

Garapenerako lankidetzaren alorrean, hiru adierazle mota proposatzen dira:

- lankidetzaren mota zehazten duten adierazleak, bereziki, ekintzei, geografiari eta esku hartzen duten eragileei dagokienez
- pertsonen bizi-baldintzen hobekuntzarekin lotutako adierazleak
- lerro zuzentzaileekin lotutako adierazleak

Lankidetzata mota zehazten duten adierazleak

	URTEKO ADIERAZLEA	2009KO DATUAK
Lankidetzata-proiektuak*	Proiektu kop.	46
Proiektuko batez besteko baterako finantzaketa	Proiektuko batez besteko diru-laguntza (€)	57.753,60
Adierazle geografikoak		
Lankidetzata garatzen duten herrialdeak	Herrialde kop.	22
Herrialde bakoitzeko zenbatekoak		Ikusi eranskina
Proiektuen kokapena	Kokapen kop.	38
Lankidetzako eragileekin lotutako adierazleak		
Tokiko eragileak	Tokiko eragile kop.	29
GGKE	GGKE kop.	25
Garapen-bidean dauden herrialdeetako eragileak (aurkako alderdiak)	Aurkako alderdi kop.	44
Aurkako alderdi finkoak (3 urte edo gehiago)	Aurkako alderdi finkoen kop.	21

* Programa edo hitzarmen jakin batek hainbat proiektu izan ditzakeela ulertuta.

Bizi-baldintzekin lotutako emaitzen adierazleak

Adierazlea planaren indarraldirako finkatzen da eta ez da aurreko epealdiarekin alderaketarik egiten, datuak ez baitaude eskuragarri.

EMAITZA	ADIERAZLEA
Oinarrizko zerbitzuetarako irisgarritasuna (ura, saneamendua, etxebizitza eta abar)	Planaren indarraldiko pertsona kop.
Alfabetatzea, hezkuntza, prestakuntza	Dagozkien tituluak lortzen dituzten pertsonen kop.
Osasun-zerbitzuetarako irisgarritasuna epe jakinean	Pertsona kop.
Gizarte-zerbitzuetarako irisgarritasuna	Berdin
Baliabide ekonomikoetarako irisgarritasuna epe jakinean	Berdin
Babesa eta laguntza	Babes-programetan lagundutako eta zaindutako pertsona kop.

Lerro zuzentzaileekin lotutako adierazleak

Hori horrela, definitutako lerro zuzentzaileekin lotuta emaitza lodiak eta adierazle arruntak xedatu daitezke:

Gasteizko kolektiboen eta garapen-bidean dauden herrialdeetako proiektuetako kolektibo protagonisten arteko topaketa-esperientziak	URTEKO ADIERAZLEA			2009KO DATUAK		
	Topaketa duten programa edo proiektu kop.			Ez dago eskuragarri		
Lankidetzako prozesu jarraituak (3 urte edo gehiago) leku jakinetan	Hainbat urtetarako programen edo proiektuen kop.	Lankidetzako aurrekontuaren %1*	14	58,7 %		
Emakumeak ahalduntzeko proiektuak eta berdintasuna sustatzeko proiektuak	Proiektu kop.	Lankidetzako aurrekontuaren %	13	23,0%		
Generozko ikuspegia benetan txertatu duten proiektuak	Proiektu kop.	Lankidetzako aurrekontuaren %	Ez dago eskuragarri	Ez dago eskuragarri		
Immigrazioarekin lotutako lankidetzak-ekimenak	Programa edo proiektu kop.	Lankidetzako aurrekontuaren %	6	9,1 %		
GGKE eta immigranteen kolektiboen arteko lankidetzak-esperientziak	Programa edo proiektu kop.	Lankidetzako aurrekontuaren %	3	3,3 %		
Bidezko merkataritzarekin lotutako ekoizpen- edo merkaturatze-ekimenak	Proiektu kop.	Lankidetzako aurrekontuaren %	1	4,2%		
Udal-zerbitzuek egindako misio teknikoak	Misio kop.	Inplik. emak. Inplik. gizon.	2	2	2	
Truke teknikoak Vitoria-Gasteizen	Truke kop.	Inplik. emak. Inplik. gizon.	3	3	1	
Ex-post laguntza-esperientziak	Esperientzia kop.	Modalitatea	0			
Jarraipen tekniko espezifikoko esperientziak	Esperientzia kop.	Modalitatea	0			
Lankidetzaren kalitatea hobetzeko prestakuntza-jarduerak (eragileen arabera bereiziz: GGKE, udaleko langileak, beste eragile batzuk)	Jarduera kop.	Emak. prest. Gizon. prest.	1			
Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak kontratatutako edo egindako ebaluazioak	Ebaluazio kop.			1		

* *Garapen-bidean dauden herrialdeetako lankidetzak-ekintzetara bideratutako aurrekontuak (garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioa eta beste kostu batzuk albo batera utzita).*

Garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioaren alorra

Garapenerako hezkuntzari eta sentsibilizazioari dagokionez, adierazleen definizioak zailtasun espezifikoiei egiten die aurre, bereziki, tartean nahasitako eragileen aniztasuna, jardueren ugartasuna eta haien intentsitatea dela eta (ordutegiaren karga, inplikazioa eta abarri dagokionez). Hori dela eta, adierazleak ez dira berehala definituko, horren ordez, planaren helburuen arabera egokiak, esanguratsuak, interpretagarriak eta datuak biltzeko gehiegizko esfortzua eskatzen ez dutenak suertatzen diren adierazleen kopuru mugatua definituko da 2010. urtean.

Baldintza beretan mantenduko dela pentsatzen den adierazle bakarra azalduko da:

	ADIERAZLEAK		2009KO DATUAK	
Garapenerako hezkuntza-prozesu jarraituetan (ikasturtea) inplikaturako kolektiboak	Kolektibo kop.	Pertsona kop.	24	1.844

Bidezko merkataritzako erosketei dagokienez, adierazle hau zehazten da:

	ADIERAZLEAK		2009KO DATUAK	
Bidezko merkataritzako produktuak udaleko zerbitzuetan edo kontratazioetan sartzeko esperientziak	Kontratazio edo espediente kop.	Kontratazioaren zenbatekoa, guztira*	1	Ez dago eskuragarri

* Bidezko merkataritzako produktuen erosketari buruzko zenbatekoen datua eskuragarri baldin badago.

Planaren jarraipena eta ebaluazioa

Urtero plana bete izanaren txostena aurkeztuko zaio Garapenean Laguntzeko Kontseiluari eta bertan definitutako adierazleen datuak jasoko dira.

2012. urtearen amaieran emaitzak eta definitutako adierazleak berrikusiko dira.

2014. urte hasieran, planaren ebaluazioa egingo da kanpoko laguntzarekin. Ebaluazioak tresnak berezi beharko ditu, finkaturako emaitzetan eta adierazleetan oinarritu eta tartean sartutako eragilean lagin esanguratsuaren iritziak bildu, garapen-bidean dauden herrialdeetako eragileak barne.